

UNESCO Etxea
Lan koadernoak. 1. zb.

Kultura eta Garapena

Bilakaera eta etorkizuna

Maidar Maraña



Urtearen ospakizunean





aurkibidea

01. Sarrera
02. Kultura eta garapena
03. UNESCOren papera
04. Nazio Batuen beste agenzia batzuk
05. Beste tresna batzuk
06. Kultura-eskubideak
07. Ondorioak
08. Irakurtzeko gonbidapena
09. Loturak

Kredituak

© UNESCO Etxea, 2010

Kolaborazioak: M. Mancisidor, O. Andueza, T. Anuzita, L. Vega, M. Hernando, N. Uribe y R. Iñiguez.

Itzulpena: Bakun

Produkzio editoriala: SRB

Lege-gordailua: BI-1924-2010



Aitortu-Ez komertziala-Lan eratorririk gabe 3.0 Espainia

Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango duzu, baldintza hauek betez gero: Lanaren egiletza aitortu behar duzu. Ezin duzu lan hau erabili merkataritza-helburuetarako. Lan hau ezin da aldatu edo bertatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.es>

Laguntzailea:





01. Sarrera

Kultura eta garapena hitzak ez dira beti elkarren ondoan joan, eta ez dira testuinguru berean landu. Nolana-
hi ere, azken urteotan gero eta elementu, tresna eta ideia
gehiagok bultzatzen dute hitz-bikote horrekiko arreta.

Kultura eta Garapena. Bilakaera eta etorkizuna ize-
neko lan honek garapenaren barruko alderdietan sakon-
du nahi du, eta garapena modu global eta integralean
ulertzea sustatu nahi du. Ildo horretan, guztiz ezagu-
na da hezkuntzak edo ingurumenak, adibidez, lotura
sendoa eduki dezaketela giza garapenarekin. Kultura
–sarritan hain esparru zabala duen hitza–, eztabaida
horren barruan dago. Aspalditik hona, hezkuntzako eta
gizarteko hainbat pertsonaia eta erakunde –gobernu
artekoak nahiz gizarte zibilekoak– lanean dabilta kul-
turak garapenean izan dezakeen paperaren sakontze
teorikoa egiten, eta horren aplikazio praktikoa susta-
tzeko ekintzak prestatzen.

Dena dela, eta kulturaren eta garapenaren arloan
egindako lan guztiak gorabehera, gizarte zibilaren, kul-
tura-erakundeen eta GKEen ustez, besteak beste, are
gehiago sakondu behar da kulturak garapen-prozesue-

tan duen paperean, bai teorian bai praktikan, garapen-
jarduera eta -proiektuen bidez: garapena ulertzeko mo-
dutik hasi eta garapenaren aldeko lankidetzan kultura
zeri esaten zaion argitu arte. Era horretan, teoria aplika-
tu ahal izateko tresnak sortu, eta kulturaren zeharkako-
tasuna zabalagoa izango da garapenaren praktikan.

Egile askok landu dute kultura eta garapena bino-
mioa, bai eta horren barruko alderdi asko ere (kultura-
eskubideak, kultura- eta sormen-industriak, kulturen eta
hizkuntzen aniztasuna, etab.). Esparru horretan, oraindik
lan asko dago egiteko. Liburu honek kulturaren eta ga-
rapenaren arloko ekimen bat gehiago izan nahi du, eta
binomio hori aurkeztu nahi dio interesa duen edonori.

1966rako, UNESCOk nazioarteko agiri batean azpi-
marratu zuen nahitaez nazioarteko lankidetzaren barruan
txertatu behar zela kultura. Hurrengo hamarkadetan, ga-
rapenaren kontzeptua sakondu ahala, ekonomia-hazkun-
dea ez ezik, garapen osoaz hitz egiteko ezinbestekoak
diren beste faktore batzuk ere aztertu ziren, batez ere
Amartya Sen, nazioarteko adituaren eskutik 1990tik au-
rrera zabaldu zen giza-garapenaren inguruan, bertan ga-
rapena pertsonen gaitasunak sendotzeko eta aukerak za-
baltzeko prozesua bezala hartzen delarik. Giza-garapenak
erreferentzi-markoa eman zuen, bere barne garapenaren
inguruan biltzen ziren gai ezberdinak kontutan hartuz.

Kultura ere –bai eta kulturaren aniztasuna eta askatasuna ere– aztertua izan da eta interesa sortu du, funtsezkoa baita pertsonen eta komunitateen garapen osorako.

Nolanahi ere, urte askoan kultura bazterturik egon da garapen- eta lankidetzaren programetatik. Beraz, lan honetan aztertuko dugu, lehenik, garapenean eta lankidetzan kultura txertatu izanaren eboluzio historikoa. Horretarako, arlo horretan nazioartean dauden tresnarik garrantzitsuenak aztertu eta azpimarratuko ditugu mugari, une eta agiri nagusiak. Kasu honetan, ezinbestekoa izango da Nazio Batuen eta batik bat UNESCO aipatzea, erakunde horrek azpimarratu baitu kulturaren eta garapenaren arteko harremana. Era berean, gerora, Nazio Batuen Sistemako beste agentzia batzuek ere jorratu dituzte alderdi gehiago ere, hala nola kultura-askatasuna (UNDP), sormen-industriak (UNCTAD, UNDP eta UNESCO) edo kultura-eskubideak (OHCHR).

Ondoren erakutsiko dugun moduan, kulturaren eta garapenaren arteko edozein hurbilketa ariketa integral bat egitea eskatzen du, harreman horretan hainbat ikuspuntu baitaude, eta zientzia askoren zeharkakotasuna eskatzen baitu (antropologia, soziologia, historia, politologia, etab.). Lan honen ezaugarriengatik, beraz, ezin dira teoria guztiak aztertu, ez teoria nagusiak, ez garapenean kultura txertatzea bultzatzen duten ekimen guztiak, baina arlo horretako ekimenik garrantzitsuenen berri emango da, hortik abiatuta urrats bat gehiago egiteko.

Bestalde, eta kulturak garapenean duen presentzia dela eta, lankidetzaren estrategia eta proiektuen barruan aipatu ohi dira kultura-eskubideak ere, baina sarritan ez dira oinarritzat hartzen nazioarteko dokumentuak, kultura-eskubideak argitzen lagun dezaketenak. Gaur egun, kultura-eskubideak argitu ahal izateko erabakigarria den une batean gaude: duela hilabete batzuk Genevan onartu zen Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren 15.1.a. artikuluari egindako Ohar Orokorra (21.zenb), eta «kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea» aipatzen da. Era berean, joan den irailean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzardeak kultura-eskubideen arloko Aditu Beregain bat izendatu zuen, kultura-eskubideen esparrua argi zezan eta horren inguruan nazioartean dauden legeriak azter ditzan.

Garapenerako lankidetzaren barruan eskubideen ikuspuntuak gero eta garrantzi handiagoa duenez –gero eta funtsezkoagoa da edozein lankidetzaren–, kultura-eskubideak argitu beharra dago, kultura-lankidetzako proiektuak burutu ahal izateko.

Horrela, kulturak komunitateen eta pertsonen garapenean duen paperaren ikuspegi teorikoaren eztabaida

eta tresna nagusiak aipatzen ditu argitalpen honek. Liburu honen helburua ez da arlo horretako lan, ikerketa edo agiri guztien sistematizazio exhaustiboa egitea, ez eta baliabideen gida bat izatea ere. Interesa duen edonori kultura eta garapena binomioa zertan den ulertzen hasteko agiri eta lanen berri emango dugu. Ildo horretan, gidaren amaieran artikulua eta lanen zerrenda bat dator, irakurtzeko gonbidapena atalean, arloan sakondu nahi dutenentzako eta, besteak beste, eskuragarrienak diren baliabideak eskaintzen dira, adibidez Interneten edo gaztelaniz dauden artikulua. Zerrenda horretan daude liburu hau egiteko erabilitako lan guztiak ere.

Kultura eta Garapena. Bilakaera eta etorkizuna izeneko hau Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren laguntzaz egin da eta, beraz, tresna erabilgarri txiki bat izan nahi du kulturaren eta garapenaren arteko harremanera hurbildu nahi dutenentzat.

02. Kultura eta garapena

«Kultura eta garapenaren helburua eta bidea»

L.S. Senghor, poeta (Senegal, 1906-2001)

Azken hamarkadetan garapenaren kontzeptua sakondu egin da, eta bere barruan sartzen dira ekonomia-hazkunde edo ekoizpena, bai eta garapen osorako ezinbestekotzat hartzen diren faktoreak ere. Garapen hori ez da lineala, baizik eta prozesu konplexua, non hainbat eremu eta ezaugarri dauden harremanean.

Nazio Batuen Garapen Programak (UNDP) eta Amartya Sen-ek bultzatu zuen nazioartean giza garapena kontzeptua, eta barruan sartu zituen hezkuntza edo osasuna, funtsezko faktore moduan. Giza garapena definitzen du pertsona bakoitzaren gaitasunen zabalpen gisa eta, era horretan, pertsona ipintzen du garapen-ekintzaren erdigunean.

Halaber, UNDP-k garapenaren ikuspuntua osatzeko txostenak sustatzen ditu: adibidez, berotze globala¹, uraren eskuragarritasuna², giza mugikortasuna edo migrazioak³ eta kultura-askatasunari⁴ buruzkoa, gero aipatuko duguna. Testuinguru horretan, kultura ere interesgarria izan da garapenaren analistentzat.

Horrela, azken urteotan zabaldu egin da kultura ere txertatu beharra garapen-politika eta -ekintzetan. Giza garapen iraunkorrari lehentasuna ematen zaionez

¹Giza Garapenari buruzko Txostena 2007-2008, UNDP: *La lucha contra el cambio climático: solidaridad frente a un mundo dividido*.

²Giza Garapenari buruzko Txostena 2006, UNDP: *Más allá de la escasez: poder, pobreza y la crisis mundial del agua*.

³Giza Garapenari buruzko Txostena 2009, UNDP: *Superando barreras: movilidad y desarrollo humanos*.

⁴Giza Garapenari buruzko Txostena 2004, UNDP: *La libertad cultural en el mundo diverso de hoy*.

ekonomiazkoak diren beste garapen-ereduen gainetik, kultura beharrezkotzat hartu da pertsonen eta komunitateen garapen osorako. Garapenak, pobrezia gaitze gisa, pobrezia hitzaren gero eta kontzeptu zabalagoa aukeratu du: horrela, pobrezia ikuspegi zabalago batek kultura ere hartzen du aintzat.

Izan ere, besteak beste George Yúdice-k dioen moduan, bai garapena bai kultura hitz aldakorrak dira, eta 60ko urteetan «kultura aintzat hartzen ez zuen garapena» bultzatu zen. Hain ekonomiazkoak ez diren garapen-kontzeptuak zabaldu izan direnean ere, adibidez ekologistek eta ingurumen-adituek sortutako garapen iraunkorra, kultura ez da kontuan hartu. Garapenerako ekintzan ere ez zegoen kulturaren benetako presentziarik. Garapena lotuegia zegoen ekonomia-hazkunderari, eta John Hawkes bezalakoek –‘The Fourth Pillar of Sustainability’ liburuan– askotan politika publikoen oihartzun edo babes handirik gabe defendatzen zuten kulturak izan behar zuela iraunkortasunaren 4. zutabea.

Adituak kulturaren eta garapenaren arteko harremana defendatzen hasi ziren 70eko hamarkadan, baina 80ko urteen bukaera arte edo 90eko urteak arte nazioarteko erakundeak eta garapen-lankidetzarako agentziak ez ziren hasi kulturak garapenean izan dezakeen eragina aztertzeko ikerketak eta lanak bultzatzen. Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedraren zuzendari den Alfons Martinell-ek zioenez, adituek bultzatutako ikerketak gorabehera, «haien ekarpenek interes gutxi jaso dute nazioarteko komunitatearen agenda politikoetan»⁵. Ideia horixe berresten dute hainbat administrazioen garapen-lankidetzarako gida-plan askok, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Gida Planak (2008-2011), hone-la baitio: «urteetan zehar, kultura bazterturik egon da garapen-politiketarik»⁶.

Kulturaren eta garapenaren arteko urruntasuna eragin duten arrazoiak hainbat eta hainbat izan dira, eta hori aztertzeak gaitze egiten ditu lan honen mugak. Baina, horretan gehiegi sakondu gabe, *kultura* hitzak gure gizartean duen indefinizioak eta hitz horren gehiegizko erabilerak agian eragina izan dute kultura garapen-politikan berandu sartzean. Kultura beti arazo konplexutzat hartzen da, sentiberatasun sozial eta politiko handia sortzen du, eta gure garai hauetan hitz klixia bihurtu da, gure errealitateko ia testuinguru guztietan barra-barra erabiltzeraino (politikan, gizartean, hezkuntzan, ekonomian, etab.).

Anna Geli-ren arabera, kultura hitz ‘maleta’ da, eta hezkuntza bezalako beste hitz batzuekin batera, «den-

Argazkia: UNESCO – A. Clayson



dena esanahi duten eta ezer argitzen ez duten hitzak izan daitezke». Geli-k gaineratzen duenez, «sarritan aho betean aipatzen ditugu kultura bezalako hitzak, zertaz ari garen zehatz jakin gabe»⁷. Kulturaren arloa sarritan eztabaida-iturri ere izan da, politikan eta gizartean.

Horretaz gainera, kultura hitzak gaur egun duen esanahia nahiko berria da gure hizkuntzan: duela 300 urte baino gutxiago, kultura hitza lurra lantzearekin zuen loturatik eten eta gerora zabaldu den esanahi abstraktua hartu zuen (espiritua lantzea)⁸. Prieto de Pedronen iritziz, «*kultura* hitzaren sorrera berri samarra da». Duela hiru mende, 1690an, Dictionnaire Universel-ek kulturaren esanahi tradizionala bakarrik jaso zuen.

Kulturaren inguruan aurkitzen ditugun hitz-elkarte ugariak (masen kultura, kultura-ondarea, kultura-nortasuna, herri-kultura, kultura-aniztasuna, etab.), hitz hori askotan eduki errealik gabe erabiltzearen adibideak izan daitezke.

Era berean, kultura-aniztasunak pertsonaren norta-

⁵ Carbó Ribugent, Gemma (koordinatzailea); *La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo*, Documenta Universitaria, Girona, 2008.

⁶ Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Gida Plana (2008-2011).

⁷ Carbó Ribugent, Gemma (koordinatzailea); 2008.

⁸ Prieto de Pedro, Jesús; *Cultura, Culturas y Constitución*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2006.

sunarekin duen harremanaren ondorioz, kulturaren in-guruko lana oso 'sentikorra' da lankidetzan diharduten eragile askorentzat. Kultura hitzak hainbeste definizio izanik, gainera, kulturaren arloan egin daitekeen lanaren hainbat hurbilketa eta ikuspegi desberdin daude. Kulturaren indefinizio teorikoak eragin zuzena izan du garapen-politiketan txertatu ez izanean, Rubens Bayardo-k dioen moduan: «Kulturaren irakurketa eta hurbilketa ugari daude, eta barruan zer sartu eta zer ez sartu da arazoa»⁹.

Lan honetan kulturaren definizio zabal bat erabiliko dugu, Mondiacult-en (1982) sortu eta UNESCOk erabilia, kultura-adierazpenak kulturen berariazko agerraldi gisa hartzen dituena. Era horretan, eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Gida Planari ere jarraituz, «kulturrak emandako testuinguru, balio, subjektibotasun, jarrera eta gaitasunen gainean eraiki behar dira garapen-prozesua». Kulturaren definizio horren barruan doa kulturen osagarritasunaren ideia ere, kulturak dinamikoak izatea eta elkar baztertzen ez duten kultura-nortasunak sortzea. Horrela, kultura ez da balioen eta jardunbideen multzo estatiko bat: etengabe birsortzen da, pertsonak beren balio eta jardunbideak zalantzan jarri, moldatu eta birdefinitu egiten baitituzte, errealitatea aldatu eta ideiak trukatu ahala. Azkenik, lan honen ustez, kultura-aniztasuna gertaera *naturala* da eta giza-kiak berezkoa du.

Garapenean kultura txertatzeko oztopoen artean, duela gutxi arte, kulturak babestea «gutxiengo kulturalen» arazoa besterik ez zen eta, beraz, eragin txikia zuen Estatuan¹⁰. Ideia hori bera landuko dugu kultura-eskubideei buruzko atalean ere.

Kultura eta garapenaren azterketan azpimarratzeko beste alderdi bat zera da: kultura-lankidetzaren baitan denetarik ekintzak egiten dira eta, kultura arte ederrekin eta elitismoarekin lotzen duen eta zoritxarrez hain zabaldua dagoen ikuskera horren ondorioz, kultura-politikek kultura mota jakin baten alde egin dute beti. Hala dio Yúdicek: «Artea eta ondarea babesteko politika konbentzionalak dira ugariak kultura-politiken barruan, eta baztertu egin dute kulturaren esanahi zabalagoa». Horrela, ondare ez-materiala, besteak beste hizkuntzak eta ohiturak, ez ziren sustatzen edo babesten politika publikoen aldetik.

Egoera hori ez da ematen, pentsa litekeen bezala, tokiko mailan bakarrik: garapen-erakunde aldeaniztunek ez dute beren ekintza guztietan beti kultura txertatzen. Azken urteotako nazioarteko instantzia aipagarrien artean, adibidez, ezin aipatu gabe utzi Milurtekoaren

Garapen Helburuak, 2000. urtean onartuak. Milurtekoaren Garapen Helburuei gehien egin zaien kritiketako bat da, hain zuzen ere, kultura aintzat hartu ez izana. 2008ko maiatzaren 21ean, Elkarriketaren eta Garapenaren aldeko Kultura Aniztasunaren Munduko Eguneko ospakizunaren barruan, orduan UNESCOk Zuzendari Nagusi zen Koichiro Matsuura-k esan zuen moduan, egungo egoeran «kultura-aniztasunak garapen iraunkorraren eragile izan behar du eta, beraz, pobrezia-aren kontra egiteko tresna erabakigarria. Erronka erabakigarria da nazioartearantz. Izan ere, hezkuntza bai baina kultura ez da aipatzen Milurtekoaren Garapen Helburuen artean, ezinbestekoa den arren helburuok erdiesteko»¹¹.

Bestalde, ezin dugu ahaztu hainbeste kritikatu den 'kulturaren ekonomizazioa' edo kultura-adierazpenen instrumentalizazioa ere (hala aipatzen dute Rubens Bayardo-k edo Nazio Batuen ekonomia sortzaileari buruzko lanek). Merkantilizatu egin dira hainbat sektore berri, besteak beste kulturaren barrukoak. Aintzat hartu beharrekoak dira kulturaren industriak eta sormenaren industriak garapenarekin lotzen dituzten ikerketak eta proposamenak, kultura guztiek berezkoa duten sormena aprobezta dadin komunitate bakoitza garatzen. Ildo horretan, aipatzekoa da Nazio Batuen 'Informe sobre la Economía Creativa 2008. El desafío de evaluar la economía creativa: hacia la formulación de políticas públicas informadas' izeneko Txostena, hainbat agintziaren artean egina, UNDP eta UNCTADek koordinatuta (Nazio Batuen Merkataritza Programa), UNESCO eta OMPIren laguntzarekin.

Garapenak, pobrezia gainditzeko bide moduan, kontzeptu zabal eta holistikoa izan behar du, kultura-garapena ere txertatzen duena. Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzari gogorarazi behar zaio, gainera, kultura-aberastasunean oinarritzeak aukera ugari ematen dituela, aberastzat hartzen baitira beti «pobretzat» hartu diren komunitateak, pobrezia-aren kontzeptu arruntari jarraituz (oinarritako premia ase gabeak). Era berean, lankidetzak beti gogoan izan behar du «gizarteko problemak kultura-ikuspegia», Gonzalo Carámbula-k¹² dioen bezala; hau da, kultura aintzat hartu beharrekoa dela lankidetzaren proiektuetan, bai eta garapen-ekintza sozial edo teknologiko guztietan ere. Gatazkak kudeatzerakoan, baina, kultura ez da kontuan hartzen, Carámbularen hitzetan: «Erabaki publikoak hartzeko orduan (...) kultura bazterrean edo beste arau batzuen mende geratzen da».

Egile berak aipatzen du garapenean kultura txertatu

⁹ Bayardo, Rubens: 'Sobre el financiamiento público de la cultura. Políticas culturales y economía cultural' (www.naya.org.ar).

¹⁰ Prieto de Pedro, Jesús; *Cultura, Culturas y Constitución*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2006.

¹¹ Matsuura, Koichiro, 2008ko maiatzak 21, UNESCOk antolatutako Kultura Aniztasunaren Munduko Eguneko hitzaldia.

¹² Carámbula, Gonzalo; <http://www.laondadigital.com/laonda/laonda/Documentos/6En%20el%20Foro%20de%20la%20zona%20de%20Montevideo.htm>.

ez izanaren beste arrazoi bat, hau da, «politikaren edo administrazioaren epeen aldean, kulturaren epeak oso desberdinak dira». Garapena eta lankidetzak-ekintzak, baina, estu-estu daude loturik politikaren eta bere administrazioen funts, baliabide eta epeetara, eta hori ere kontuan hartu behar da, garapenean kultura txertatzeko orduan.

Puntu honetan aipatu beharrekoak dira kultura-adierazleak: izan ere, nazioarteko, eskualdeko eta tokiko gero eta erakunde gehiagok aipatzen dute garapen-prozesuen eragina neurtu beharra adierazle zenbagarri eta konparagarrien bidez. Baina, berriro Gonzalo Carámbulak dioen moduan, «oso zaila da edozein ekintzaren kultura-eragina neurtzea soilik adierazle zenbagarri eta kualitatiboen bidez», baina, hori bai, «aztarnak eman ditzakete». Gaur egun, UNESCO buru-belarri ari da bilatzen garapenerako baliagarriak diren kultura-adierazleak. Aipagarria da AECIDek (Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren aldeko Espainiar Agentzia) adierazleen inguruan egindako lana bere azken argitalpenean: 'Cómo evaluar proyectos de cultura para el desarrollo: una aproximación metodológica a la construcción de indicadores' (AECID, 2009).

Prozesu horretan guztian, kulturak hizkuntza politikoaren barruan sartu behar du: «kultura-aniztasuna onartzea sekulako erronka da, eta prozesu moduan hartu behar da. Zaila da aldizka neurtzea. Kultura-aniztasuna politika publikoen zeharkako bektore bihurtzeak epe motzeko neurketen zailtasuna onartzea esan nahi du», Carámbularen ustez.

Orain arte adierazitako guztia gorabehera, gaur egun garapen-ekintzen barruan kultura-politikak lehenesteko prozesu bat dago eta, Alfons Martinellek dioenez, «lankidetzaren sektore hori pixkanaka sendotzen ari dela esan dezakegu, baikortasun pixka batez»¹³.

Nazioarteko hainbat erakundek (Nazio Batuak, besteak beste UNESCO erreferente delarik) eta tokiko hainbat erakundek (adibidez Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren aldeko Espainiar Agentzia - AECID, etab.), urrats handiak egin dituzte ildo horretan, ondoren deskribatuko ditugun gogoeta, agiri eta jardueren bidez. Urrats horiek oinarritzko funts teoriko bat sortu dute eta kulturaren eta garapenaren arloan lehentasuna duten esparru batzuk erakutsi dituzte, hala nola kultura-industriak, edo ondare ez-materialekiko eta hizkuntza-aniztasunarekiko arreta berezia, besteak beste.

George Yúdicek dioenez, «kulturaren eragina jadanik onartzen da UNESCOn, nazioarteko sare batzuetan, udalerrri batzuetan eta, erretorikoki, nazioarteko politika askotan. Baina oso gutxitan jarri dira martxan ikuspe-

gi horretan oinarritutako politika publikoak», eta lehen adierazitako puntu bat adierazten du, hau da, kultura-eta garapen-ekintzen konpreziorek eza.

Nazioarteko komunitatearen mugarri eta tresna aipagarrienak deskribatuko ditugu orain.

03. UNESCOren papera

Nazio Batuen erakunde espezializatuen artean, gehienbat UNESCOk nabarmendu zuen kulturaren eta garapenaren arteko harremana. Nazio Batuen barruan UNESCO denez kulturaz arduratzen dena, sortu zenetik gaurdaino, UNESCOk kultura-aniztasuna eta kulturek elkar ulertzea sustatu du. Aipagarria da 2010ean ospatzen dela Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Urtea, UNESCOk koordinaturik. Gogoratzeko modukoa da UNESCOren Zuzendari berri Irina Bokova andreak esandakoa ere, Haitira azkeneko joan denean: «harreman estua dago garapenaren eta kulturaren artean»¹⁴, eta azpimarratu du kultura ere txertatu beharra, duela hilabete batzuk lurrikara batek herrialdearen zati bat suntsitu eta hura berreraikitze prozesuaren barruan; eran honetan arreta gune berri bat azaldu zuen, hondamendi eta larrialdien ondorengoko osatze prozesuetan kulturak duen rola, hain zuzen.

UNESCOren meritua izan da gai hori azpimarratzea eta ikerketak eta ekintzak bultzatzea, kultura garapenaren funtsezko zati delakoan.

UNESCO espezializatuta dago kultura-ondarea babesteko eta zaharberritzeko prozesuetan eta nazioarteko kanpainetan, hala nola Abu Simbel edo Veneziakoetan, eta horren gailurra izan zen Munduko Kulturaren eta Naturaren Ondareari buruzko UNESCOren Konbentzio ospetsua (1972). UNESCOk kultura-ondarearen inguruan eta hura babesteko egindako ekintza ugari eta eraginkorren ostean, ondareak gizarte-kohesioan duen paperean sakondu du, eta kulturak garapen-ekintzeekin duen harremana zabalduz joan da. Era horretan, kultura-politikak garapen-prozesuaren zeharkako elementu eta eragile eraginkor ari dira bihurtzen, eta ez dira osagarri hutsak.

UNESCOk, ibilbide horretan, kultura hitzak XX. mendearen azken hamarkadetan eta XXI. mendearen hasieran izandako eboluzioaren lau etapa adierazi ditu:¹⁵

1. 50 eta 60ko urteak: kulturaren kontzeptua zabaldu egin zen arte-ekoizpenetik kultura-nortasunera. Epe horretan, kulturak deskolonizazioa bezalako

¹³ Carbó Ribugent, Gemma (koordinatzailea); *La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo*, Documenta Universitaria, Girona, 2008.

¹⁴ http://www.unesco.org/new/es/media-services/single-view/news/culture_must_be_an_integral_part_of_reconstruction_says_director_general_after_haiti_visit/back/18256/

¹⁵ *10 clés pour la Convention sur la protection et la promotion de la diversité des expressions culturelles*, UNESCO, 2-3 or.

Argazkia: UNESCO – M. Ravassard



egoerei emandako erantzunak direla defendatzen du, eta kultura guztien berdintasuna aitortzen du.

2. 70 eta 80ko urteak: kulturaren eta garapenaren arteko lotura sendoaren kontzientzia zabaldu, eta nazioarteko lankidetzaren eta garapen bidean dauden herrialdeekiko elkartasunaren oinarritzat hartzen da.
3. 80 eta 90eko urteak: demokraziak eraikitzerakoan kulturako aspirazioen eta oinarrien kontzientzia hartzen da. Gutxiengo, herri autoktono eta etorkinen bazterketa eta diskriminazioa aztertzen da.
4. 90 eta 2000ko urteak: kulturen eta zibilizazioen arteko elkarrizketaren aberastasuna azpimarratzen da, eta gizateriaren ondare izendatzen da, kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertselean. Aniztasunaren bi alderdiak ere aipatzen dira: bata, kultura-nortasun ugari eta dinamiko guztien arteko harreman harmoniatsua bermatzea; eta, bestea, kulturen berezko sormen-aniztasunaren eta kultura-forma eta -adierazpen ugarien defentsa.

Gaur egun, UNESCOk kultura prozesu jarraitu, malgu eta ebolutiboa izatea ere bultzatzen du, kultura-aniztasuna ezinbesteko baldintza delakoan bakerako eta garapen iraunkorrerako.

Ildo horretan, UNESCOk gobernu arteko bilera, azterketa eta proposamen ugari egin ditu eta, horiei esker, kultura da ardatz nagusietako bat garapen-eredu

berrian. Honako hauek dira UNESCOren mugarrietako batzuk kulturaren eta garapenaren arloan:

1) NAZIOARTEKO KULTURA-LANKIDETZAREN OINARRIEN ADIERAZPENA (UNESCO, 1966).¹⁶

Adierazpen honen ekarpenik esanguratsuena, zalantzarik gabe, lehen artikuluan bertan egiten duen kultura guztien duintasun berdinen defentsa da:¹⁷

Lehen artikulua

1. *Kultura orok du errespetatu eta babestu behar-reko duintasuna eta balioa.*
2. *Herri orok du bere kultura garatzeko eskubidea eta betebeharra.*
3. *Kultura oro, bere ugaritasun, aniztasun eta elkarrekiko eragin guztiekin, gizateria osoaren ondare da.*

Adierazpen horretako ideia batzuek oihartzun handia izan dute nazioartean kultura-mailan egindako lan guztian: 'kulturaren garapena', 'kultura-aniztasuna', 'gizateria osoaren ondare', etab. Era berean, nazioarteko kultura-lankidetzaren lehen definizio bat ematen du: «eskubidea eta betebeharra da herri eta nazio ororentzat, eta horiek beren jakintza eta ezagutzak partekatu behar dituzte» (V. artikulua). Adierazpena ixten duen XI. artikulua dioenez, Adierazpeneko eduki guztien oinarri izan behar du «giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetuak», eta ideia horrexen inguruan egingo dira eztabaida franko hurrengo hamarkadetan.

2) GOBERNU ARTEKO LEHEN BILTZARRA KULTURA-POLITIKEN ALDERDI INSTITUZIONAL, ADMINISTRATIBO ETA FINANTZARIOEZ (UNESCO, 1970).¹⁸

Gobernu arteko Biltzarra 1970ean egin zen Venezian, «kultura-garapenari laguntzeko neurriak aztertzearren», eta, UNESCOk gobernu artean antolatutako biltzarren artean, soilik kulturaren inguruan egin den lehena izan zen. 'Kultura-garapena' eta 'garapenaren dimentsio kulturala' zeri esaten zaion planteatu eta eztabaidatu zen.

Azken Txosteneko agirian aurkezten dira ondorioak, kultura garapen-ekintza publikoetan txertatzeari buruzkoak. Honako hau da oinarria: «jendea gero eta gehiago ari da konturatzen kultura-balioak babestu eta kultura-jarduerak sustatu behar direla». Bere ustez, 'egiten uztea' ez da aski kultura-premiak guztiz asetzeko eta, beraz, «lehen begiradan, nahiz eta kultura-premiak ez iruditu beste premia batzuk bezain nabari

¹⁶ Nazioarteko Kultura Lankidetzaren Oinarrien Adierazpena (UNESCO, 1966ko azaroak 4).

http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13147&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

¹⁷ Ikusir "La posición de la UNESCO" (p.91-96) en Prieto de Pedro, Jesús; *Cultura, Culturas y Constitución*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2006.

¹⁸ Gobernu arteko lehen biltzarra kultura-politiken alderdi instituzional, administratibo eta finantzarioez (UNESCO, Venezia, 1970).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0009/000928/092837SB.pdf>

Argazkia: UNESCO - A. Sellanes



eta larriak, hala nola osasuna, hezkuntza edo gizarte-ongizatea, (...) gobernuek eta herri-agintaritzek kulturarekiko erantzukizun argia onartu behar dute, bai eta epe luzeko politikak prestatu ere».

1970ean aipatu ziren oraindik ere, 40 urte geroago, indarrean dauden ideia batzuk, adibidez «Zabaldu egin behar da nazioarteko laguntza (...), eta barruan sartu kulturaren sustapena eta kultura-ondare espiritual nahiz materialaren zaintza».

Azken Txosten horretan ageri da honako hau ere: «gero eta argiago dago kulturak aurrera egitea funtsezkoa dela ekonomiak eta gizarteak ere aurrera egin dezaten. Kultura-ekintzaren bidez nazio-nortasuna indartzea ere aurre-baldintza bat izan daiteke gizarteak eta ekonomiak aurrera egin dezaten». Giza garapen osoa lortu ahal izateko, kultura garatu beharra agertzen da hurrengo hamarkadetan arlo horretan egindako lanean. Nahiz eta dokumentu honek 'nazio-nortasuna' eta 'adierazpen-modu nazionalak' bezalako kontzeptuak erabili –1970ko testuinguruarekin eta deskolonizatzeko prozesuarekin harreman dutakoak– eta egun kontzeptu hauek erabiltzen ez diren arren, testuak garapenerako tokiko kultur-adierazpenek duten garrantzia islatzen du.

Biltzarra kultura definitzen ere saiatu zen, hitz horri buruzko ikuspegi elitistak uxatu nahian: «Kultura-jar-

duretan herriaren multzo handiek parte hartzea sustatu behar da, eta gutxiengoaren kultura inportatu eta arrotz bat ordeztu behar du herri- eta nazio-kultura batek, adierazpen-modu nazionaletan oinarrituak». Ideia hori berretsiz, «kultura ez da apaingarri soil bat, baizik eta gizarte-bizitzaren osagai bat».

Halaber, kultura-ikuspegia txertatzearen beste arlo batzuk ere aipatu zituen, gerora onartuak, hala nola hedabideen papera edo gazteen parte-hartzea kultura-sormenean.

Biltzar horren ostean, eskualdeko Biltzarrak egon ziren: Gobernu Arteko Biltzarra Europako Kultura Politikez (Helsinki, 1972); Gobernu Arteko Biltzarra Asiako Kultura Politikez (Indonesi, 1973); Gobernu Arteko Biltzarra Afrikako Kultura Politikez (Akkra, 1975); eta Gobernu Arteko Biltzarra Latinoamerika eta Karibeko Kultura Politikez (Bogota, 1978), kultura-lankidetzak eta garapena sakonduz joan direnak.

3) KULTURA-POLITIKEI BURUZKO MUNDUKO BILTZARRA / MONDIACULT (UNESCO, 1982).¹⁹

Kultura Politikei buruzko Munduko Biltzarra - MONDIACULT, Mexiko DF-n egin zen 1982ko uztailaren 26 eta abuztuaren 6a artean, eta bertan ezarritako oinarriak erabili dituzte nazioarteko hainbat erakundek eta esta-

¹⁹ Kultura Politikei buruzko Munduko Biltzarra – MONDIACULT – Mexiko (1982). <http://unesdoc.unesco.org/images/0005/000546/054668MB.pdf>

tuko gobernuek beren jardueretan hurrengo urteetan.

Mexikoko Adierazpenean dator kulturaren eta garapenaren arteko lotura ezeztazina: «garapena orekatua izan dadin, kultura-faktoreak txertatu behar dira garapena lortzeko estrategietan».

Hitzaurrean *kultura* definitzeari ekin zion, lehenagoko biltzarretan bezala. Definizio hori onartu egin da, UNESCOk bere egin du, eta gaur egun ere erabiltzen da:

A) Esanahirik zabalenean, gaur egun, kultura da gizarte baten edo gizarte-talde baten ezaugarri bereizleen multzoa, espiritualak nahiz materialak, intelektualak nahiz afektiboak. Kulturaren barruan doaz, arteak eta letrak ez ezik, bizimoduak, gizakiaren oinarrizko eskubideak, balio-sistemak, ohiturak eta sinesmenak.

B) Kulturak gizakiari bere buruaz hausnartzeko gaitasuna ematen dio. Kulturak gizaki egiten gaitu, arrazoidun, kritiko eta etikoki konprometitu. Haren bitartez balioak bereizi eta aukerak egiten ditugu. Haren bitartez, gizakiak adierazi, bere buruaren kontzientzia hartu, bere burua proiektu bukatu gabetzat hartu, norberaren lorpenak zalantzan jarri, etengabe esanahi berriak bilatu, eta bere burua gainditzen duten lanak sortzen ditu.

Biltzar horren arabera, garapena da «prozesu konplexu, global eta dimentsioaniztuna, ekonomia-hazkunde soilaz haratago biziaren dimentsio guztiak eta komunitatearen energia guztiak biltzen dituena, eta bertako kide guztiei deitzen die laguntzera eta onurak elkarbanatzera». Beraz, kulturaren dimentsio kolektiboa azpimarratzen da, eta horixe aztertuko da gerora nazioarteko azalpen-prozesuetan ere, kultura-eskubideei buruz jarduterakoan.

Biltzarra eta bere Adierazpena erabakigarriak izan

Argazkia: UNESCO



ziren gure lan honetarako, kulturaren eta garapenaren arteko harremana finkatu baitzuten: alde batetik, jadanik aipatu dugun kulturaren definizio zabala eta barneratzailea aurkeztu zuen, eta bertan sartzen dira, tradizioz kulturari loturik egon diren alderdiak ez ezik, baita gizakiaren bizimoduak edo funtsezko eskubideak ere. Adierazpenean zehar, garapenean kultura txertatzeari buruzko ideia batzuk finkatu zituen, hala nola:

- **KULTURA-NORTASUNA:** kultura bakoitza «balio-multzo bakarra da», eta «kultura-nortasunak herriak askatzen laguntzen du». Kultura-nortasuna aberasgarria da, eta gizakien arteko harremanak errazten ditu; kultura elkarriketa da, eta agortu eta hil egiten da isolamenduan.
- **GARAPENAREN DIMENTSIO KULTURALA:** kultura garapen-prozesuaren oinarrizko dimentsioa da. Garapena orekatua izan dadin, kultura-faktoreak integratu behar dira garapen-estrategietan.
- **KULTURA ETA DEMOKRAZIA:** Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikulua dioenez, «persona orok du eskubidea komunitatearen kultura-bizitzan libreki parte hartzeko (...)», hau da, kultura komunitateko kide guztiena dela azpimarratzen da, kasu batzuetan izan zuen elitismotik urrundu, eta 'kulturaren demokrazia' defendatzen da. Gizabanako guztiek kultura-bizitzan parte hartu ahal izan dezaten, desberdintasun guztiak ezabatu behar direla dio (jatorri, nazionalitate, adin, hizkuntza, sexu, talde minoritarioen kide izatetik eta abarretik sortuak).
- **KULTURA-ONDASUNA:** materiala nahiz ez-materiala dena sartzen da ondarearen barruan. Herri orok du bere kultura-ondarea defendatzeko eta zaintzeko eskubidea eta betebeharra.
- **NAZIOARTEKO KULTURA-LANKIDETZA:** kultura-jakintzak partekatu beharra defendatzen du, trukearen bidez, sormena hedatzen laguntzen baitu. Lankidetzaren horren oinarria izango da kultura bakoitzaren nortasuna eta balioa errespetatzea, eta ezingo da egon kultura-mendekotasunik edo -asimilaziorik.

4) KULTURA-GARAPENERAKO MUNDUKO HAMARKADA (UNESCO, 1988-1997).²⁰

1982ko MONDIACULT Munduko Biltzarraren ekimezez, UNESCOren Biltzar Nagusiak Kultura Garapenerako Munduko Hamarkadaren adierazpena onartu zuen (1988-1997). Hamarkada horren Ekintza Programak bi kezkarri erantzun zien: «alde batetik, garapen-prozesuetan kulturari garrantzi handiagoa emateko kezka eta, bestetik, sormena eta, oro har, kultura sustatzeko kezka». Hamarkada horrek, beraz, garapenean kultura aintzat hartu beharraz ohartarazi du nazioartea. Honako hauek ziren Hamarkadarako finkatutako lau helburuak:

²⁰ Giza Garapenerako Munduko Hamarkada, 1988-1997. Ekintza Programa. <http://unesdoc.unesco.org/images/0008/000852/085291sb.pdf>

1. Garapenaren dimentsio kulturala aintzat hartzea: «garapenaren dimentsio kulturala aintzat hartze-ko, aintzat hartu beharko dira ekonomia, gizartea, zientzia eta teknikaren garapenarekin lotutako jardura guztien alderdi kulturalak».
2. Kultura-nortasunak sendotzea eta aberastea: ondarea babestu eta berriro balio eman nahi zaio, baina zaintza hutsetik haratago, hau da, ondarearen dinamismo-prozesuak azpimarratuz; sormena ere sustatu beharra aipatzen da.
3. Kultura-bizitzan parte handiagoa hartzea: lehenik kultura-bizitza eskuragarri jartzea eta, ondoren, parte-hartzea bultzatzea. Hala eskuragarritasuna nola parte-hartzea beharrezkoak dira benetako kultura-garapenerako: kultura-eskubideak taxuz erabiltzeko baldintzak egotea beharrezkoa da.
4. Nazioarteko kultura-lankidetzaren sustatzea: «kultura erabakigarria izan daiteke harremanak orekatu-agoak izan daitezten Estatuaren artean», munduko eskualdeen arteko harremanen oreka berri baten kultura-oinarriak aztertuz.

5) GURE SORMEN-ANIZTASUNA. KULTURA ETA GARAPENAREN MUNDUKO BATZORDEAREN TXOSTENA, Javier Pérez de Cuellarrek zuzendua (UNESCO, 1996).²¹

«Gizatasunetik eta kulturatik berezita dagoen garapena arimarik gabeko hazkundea da».

Kultura eta Garapenaren Munduko Batzordea

Kultura Garapenerako Munduko Hamarkadan sortu zen Kultura eta Garapenaren Munduko Batzordea, UNESCOk bultzatua eta nazioarteko aditu ugari osatua. Javier Pérez de Cuellarrek koordinatu zuen eta honako hau adierazi zuen: «garapen-ekimenek kale egin dute sarritan, garapen-proiektu askotan gutxiet si egin direlako giza faktorea, harremanak eta sinesmenak, balioak eta motibazioak, hau da, kulturaren bihotza».

«Garapen-prozesua berrikusi beharra zegoen»²², eta Batzordea lanean hasi zen 1993an. UNDPren giza garapena kontzeptua agertzearekin batera, kultura ziur asko inplizitua zegoen nozio berrian, baina, berez, ez zen txertatzen modu esplizituan. Garapenaren kontzeptua berritzeko hurrengo urratsak zera izan behar zuen: garapen-estrategietan kulturaren ikuspegia txertatzea.

‘Gure Sormen Aniztasuna’ Txostenak funtsezko elementuak eman zituen kultura garapenarekin harremanean aztertzeko: kulturaren eta generoaren arteko harremana, sormena, kultura-ondarea garapenaren



zerbitzura, gazteen papera eta pluralismoa. Azpimarratzekoa da generoaren eta kulturaren arteko harreman saihestezina nabarmentzeko lana, eta emakumeen eskubideei lehentasuna eman beharra kultura- eta garapen-lanetan.

Batzordeak ahalegin handia egin zuen politika publikoek kulturaren duten garrantzia azpimarratzeko. ‘Kultura-politikak berrikusi’ beharra zegoen. «Etnia eta kultura anitzeko gizarteak kohesionatzeko modu berriak aurkitu behar ditugu, pluralismoa modu berrian eta desberdinean erabiliz:

1. Sormena sustatzeko era berriak.
2. Hedabideak erabiltzeko era berriak, informazio-arraila murrizteko.
3. Genero-ikuspegia erabiltzea.
4. Gazteei ardura handiagoa ematea.
5. Ingurumena kudeatzearen dimentsio kulturala hobeto ulertzea.»

Argazkia: UNESCO – N. Burke



²¹ Conferencia Mundial sobre las Políticas Culturales – MONDIACULT – México (1982). <http://unesdoc.unesco.org/images/0005/000546/054668MB.pdf>

²² Pérez de Cuellar (dir); Nuestra diversidad creativa. Informe de la Comisión Mundial de Cultura y Desarrollo, UNESCO, México, 1996.

Argazkia: Natalia Uribe



Txostenak argi aipatu zituen kultura-adierazleak ere, oraindik eztabaida-iturri direnak nazioartean gaur egun, hamarkada bat baino gehiago igaro ostean: «Kontu handiz diseinaturiko kultura-adierazleak behar dira, estandar edo mugari gisa balio dutenak, kultura-arloko ekintzen emaitzak neurtu ahal izateko. Dimentsio kulturalaren adierazle-sorta berri bat prestatu behar da».

Txostenean aipaturiko beste esparru bat hizkuntzen aniztasuna izan zen, eta hizkuntzak jakintzaren gordailu izendatu ziren. «Hizkuntza bat desagertzea gure baliabideak agortzea da, landare edo animalia bat iraungitzea bezala. Edozein hizkuntza galtzeak pobretu egiten ditu jakintzaren gordailuak eta kulturen baitan eta kulturen artean komunikatzeko tresnak».

Kultura-ondarearen esanahia birformulatu beharra adierazi zen, zaintzearen eta iraunaraztearen ikuspuntu elitistatik urrun. «Mendebaldeko herrialde industrializatuetan, kultura-ondarearen ikusgarriak eta monumentuak zaintzen dira: gune arkeologikoak, monumentu arkitektonikoak, etab. Gainera testuingurutik kanpo erakusten dira, bitrina itxietan, eta askotan bilduma pribatuetakoak dira. Ondareak ikuspuntu elitista eta maskulinoa du: arreta eta begirunea jasotzen du monumentalak baina ez etxeokak, literarioak baina ez ahozkoak, zeremonialak baina ez egunerokoak, sakratuak baina ez profanoak».

'Gure Sormen Aniztasuna' lanaren ikuspuntu batzuk gaur egun gaunditurik egon arren, oraindik ere aitortzen zaio kultura garapenean txertatzerakoan izan zuen garrantzia.

6) KULTURA-ANIZTASUNARI BURUZKO ADIERAZPEN UNIBERTSALA (UNESCO, 2001).²³

Nazioarteko agiri hau aitzindari izan zen kultura-aniztasuna gizateriaren ondare gisa sustatzen, eta kultura-aniztasuna garapen-faktore izendatu zuen, 3. artikuluan: «Kultura-aniztasunak gure aukerak zabaltzen ditu; garapen-iturrietako bat da, ekonomia hazteko ez ezik, bizimodu intelektual, afektibo, moral eta espiritual egoki batera iristeko ere bai». Egungo UNESCOren Zuzendari Nagusia den Irina Bokovaren hitzetan testu honek 1948. urteko 'Giza Eskubideen Aldarrikapenaren jarraipena da'²⁴.

Adierazpen hori dei garrantzitsua izan zen nazioartearantz, eta estatu kideak bideratu zituen «kultura-aniztasunaren problemei buruzko nazioarteko eztabaidan sakontzera, batik bat garapenarekin dituen loturei dagokionez». Estatuak kultura-aniztasunaren funtsezko eragile izateaz gain, arren eskatzen zuen «gizarte zibilko sektore guztiek kultura-aniztasuna zaintzeko eta sustatzeko politika publikoak definitzen laguntzea».

Bokovaren ustez, testu honen garrantzia, beste askoren artean, honetan datza: «ondare eta zerbitzu kulturalak beste motako merkantziak bezalakoak ez direla onartzen du, nortasun, balio eta zentzu emaile direnen heinean».

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu Adierazpen hori ez zela konpromiso politiko moral bat besterik (legez, ez zen loteslea). Carámbularen iritziz: «tamaina horretako prozesu edo helburuak ez dira bermatzen adierazpen eta itun hutsen bidez»²⁵ nahiz eta hauek, gure ustetan, oso garrantzitsuak izan. Egile beraren beste lan batean²⁶ agertzen da ideia bera: «Adierazpen batek, zuzenbide-arauen edo pertsonen arteko akordioaren antzera, ez ditu berez bermatzen espero diren emaitzak». Baina garrantzia ematen dio tresna horri: «ez da berdina printzipioei buruzko agiri sinatu bat edukitzea eta ez edukitzea», eta estatuei eskatzen die nazioarteko agiri hori onartzeko.

7) KULTURA-ADIERAZPENEN ANIZTASUNA BABESTU ETA SUSTATZEARI BURUZKO KONBENTZIOA (UNESCO, 2005).²⁷

UNESCOren Zuzendari Nagusiak adierazitakoaren arabera «UNESCOk 2001eko Adierazpena baino harantzago joatea beharrezkoa zela ikusi zuen, testu juridiko

²³ Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala <http://unesdoc.unesco.org/images/0012/001271/127160m.pdf>

²⁴ I. Bokovaren hitzaldia, 'Mundu berri baterako estrategia kulturalak' Forum-ean, Avignon-en, 2009ko azaroak 20.

<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001860/186086f.pdf>

²⁵ Hemen: Carbó Ribugent, Gemma (koordinadora); *La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo*, Documenta Universitaria, Girona, 2008.

²⁶ Carámbula, Gonzalo; 'La diversidad cultural ante la otra violencia. Algunos casos de la gestión cultural pública de Montevideo', en Moneta, Carlos (ed.); *El jardín de los senderos que se encuentran: Políticas públicas y diversidad cultural en el MERCOSUR*, UNESCO Uruguay, 2006.

²⁷ Convención sobre la Protección y la promoción de la diversidad de las expresiones culturales: <http://unesdoc.unesco.org/images/0015/001508/150824s.pdf>

loteslea izatea». 2005ean, UNESCOk pauso bat gehiago eman eta onartu zuen Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeari buruzko Konbentzioa, 2007ko martxoaren 18an indarrean jarri zelarik 30 Estatu Partek sinatu ondoren. Kultura-adierazpentzat hartzen ditu «gizabanakoen eta gizarte-taldeen sormenaren agerraldiak». Agerraldi horiek transmiti daitezke hitzen bidez (literatura, ipuinak...), soinuaren bidez (musika...), irudien bidez (argazkiak, filmak...), edozein euskarritan (inprimatuak, ikus-entzunezkoak, digitalak, etab.), edozein ekintzaren bidez (dantza, antzerkia...) edo edozein objekturen bidez (eskultura, koadroak...).

UNESCOren hitzetan²⁸, tresna arauemaile honen helburua da kultura-adierazpenen aniztasuna babestea eta sustatzea. Honako hauek dira testuaren berariazko helburuak:

- Kulturak hedatzeko eta elkarri libreki eragiteko baldintzak sortzea, elkar aberastu ahal izan dezaten.
- Kulturako jarduera, ondasun eta zerbitzu horien berariazko izaera aitortzea, nortasuna, balioak eta zentzua ematen baitituzte.
- Nazioarteko lankidetzaren era berriak birdefinitzea.
- Konbentzioak, UNESCOren arabera²⁹, ez ditu jasotzen kultura-aniztasunaren alderdi guztiak (Adierazpenak, ordea, bai), eta helburu zehatzagoak ditu: alde batetik, kulturako ondasun eta zerbitzuek nortasuna, balioa eta zentzua ematen dutela aitortu beharra, eta ez direla beste ondasun edo zerbitzu bezalako merkantzia edo kontsumorako ondasun; bestetik, estatuek kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatu beharra. Azkenik, nazioarteko lankidetzaren birdefinitu beharra, etengabeko elkarri-zketa bilaka dadin.
- Jesús Prieto de Pedro eta Alfons Martinell adituen arabera³⁰, Konbentzioa ohi baino arinago berretsi eta sartu zen indarrean, eta horrexek frogatzen du arazo honen inguruko adostasun sozial zabala –sare eta koalizioen bidez– eta interes politikoa. Egileek diotenez «horrek pentsarazten du Konbentzioaren testuak esanahi historiko handia izango duela». Testu horrek, lehenagoko Adierazpenak bezala, balio politiko ukalezina du, aniztasuna kokatzen baitu munduko agenda politikoaren lehenetsunaren artean. Nazioarteko itun batean aurreneko aldiz, kultura-aniztasuna zaintzea printzipio juridiko nagusi izendatzen du. 2001eko Adierazpena ez bezala –konpromiso politiko morala baino ez zen–, Konbentzioa konpromiso sendoa da, eta nazioarteko itun

baten itxura du.

Konbentzio horretako arazorik behinenetako bat babesaren esanahia zen: UNESCOrentzat, ordura arte, babesaren barruan sartzen ziren iraunarazteko, zaintzeko eta balioa emateko neurriak. Baina kasu honetan, sustapena hitzaren bidez, Konbentzioak kultura-adierazpenak etengabe birsortzera gonbidatzen du, museoko, folkloreko edo gauzako zerbait bihurtu ez daitezkeen. Une horretatik aurrera, babesa eta sustapena binomioa bereizteza da, eta kultura-politiken garrantzia azpimarratzen du.

Kultura eta garapena binomioa nazioarteko lankidetzaren ekintzetara moldatzea dela eta, aipatzekoa da Konbentzioaren 12tik 18ra arteko artikulua nazioarteko lankidetzari buruzkoak direla, eta xehetasun handi baina desberdinez idatziak direla. Artikulu-multzo hori da berrirenetako bat, Martinell eta Prieto de Pedoren arabera, eta horrexek erakusten du nazioarteko lankidetzak izan dezakeen garrantzia kulturaren eta garapenaren arteko harremana sustatzen.

- 12. art. Nazioarteko lankidetzaren sustapena.
- 13. art. Kultura garapen iraunkorrean txertatzea.
- 14. art. Garapenerako lankidetzaren.
- 15. art. Lankidetzaren motak.
- 16. art. Garapen bidean dauden herrialdeak lehenestea.
- 17. art. Nazioarteko lankidetzaren, kultura-adierazpenak arrisku larrian daudenean.
- 18. art. Kultura Aniztasunerako Nazioarteko Funtzsa.

Era berean, hainbat kontzeptu argitzen ditu, hala nola:

- Nazioarteko lankidetzaren: Estatu subirano bik edo gehiagok eta nazioarteko erakundeek eta bestelako eragileek modu bateratuan eta koordinatuan egindako jarduera guztiak, kultura-aniztasuna sustatzearren. Nazioarteko kultura-lankidetzaren edozein herrialdek erabiltzeko moduko tresna dela agertzen da.
- Garapenerako lankidetzaren: hainbat baliori doa loturik: iraunkortasuna, pobrezia murriztea eta Milurtekoaren Helburuak.
- Lankidetzaren, kultura-adierazpenak arriskuan daudenean: elkarri lagundu beharra.

Konbentzioaz egin duten azterketan, Prieto de Pedro eta Martinellek hiru indar-ideia aipatzen dituzte:

- Lehenbiziko indar-ideia da kultura-aniztasuna gizateria osoaren ondare dela; aniztasuna «gizateriaren funtsezko ezaugarria» da. Kultura-aniztasuna jadanik ez da estatu edo talde edo komunitateen barne arazo eskusiboa, baizik

²⁸ 10 clés pour la Convention sur la protection et la promotion de la diversité des expressions culturelles, UNESCO.

²⁹ UNESCO, *ibidem*.

³⁰ Atal honetako ideia eta ekarpen asko Prieto de Pedro eta Martinell-enak dira, hemen: Carbó Ribugent, Gemma (koordinatzailea); *La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo*, Documenta Universitaria, Girona, 2008.

eta gizateria osoaren intereseko zerbait. Kontzeptu unibertsala bihurtu eta mundu osoaren ondare izendatzen da, eta eskubideak eta betebeharrak sortzen dizkio gizateria osoari.

- Bigarren indar-ideia: lotura estua dago kultura-aniztasunaren eta balio demokratikoen eta funtsezko eskubideen artean. (Ikusi 2. artikulua eta Hitzaurrea).
- Hirugarren indar-ideia: kultura guztiek merezi dute duintasun eta errespetu berdina (horren aurrekariak UNESCOren 1966ko Adierazpean daude, lan honetan aipatua). Herrialdeak desberdinak dira ikuspuntu sozioekonomikotik, baina kultura-lankidetzak herrien arteko harremanak orekatzeko eta errazteko balio du, eta mesede handia egiten du.

Azkenik, ezin ahaztu dimentsio kulturalaren eta kultura-aniztasunaren garrantzia eta balioa garapena lortzeko, Konbentzioak bere artikuluetan dioen bezala: «kultura ezinbestekoa da garapen iraunkorrerako» (2. art.); edo «kultura elementu estrategikoa da nazio eta nazioarteko garapen-politiketan» (Hitzaurrea) eta «komunitate, herri eta nazioen garapen iraunkorraren motorretako bat» (Hitzaurrea).

8) UNESCOREN BESTE MUGARRI ETA TRESNA BATZUK.

Lehen adierazitako biltzar, argitalpen eta nazioarteko araudiez gain, UNESCOk erakunde asko ditu kultura eta garapenaren binomioan sakontzen jarraitzeko. Ondoren, aipatu baino ez ditugu egingo azken urteotako ekintza esanguratsu batzuk:

- **Hizkuntzen Nazioarteko Urtea – 2008:** «Hizkuntzek axola dute» leloaren pean, Hizkuntzen Nazioarteko Urteak zera adierazi zuen: «Hizkuntzak ez dira adituen azterketa-eremu bat, baizik eta bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalaren muintza».
- **Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Urtea – 2010:** Helburu nagusia da kultura-aniztasunaren onurak nabarmentzea, eta kulturen arteko mailegu, transferentzia eta trukeen garrantzia aitortzea, elkarriketa inplizitu edo esplizitu bati esker.
- **'Kultura-aniztasunean eta kulturen arteko elkarriketan inbertitzea' Txostena, 2009.**³¹ UNESCOk 2009ko urrian aurkeztu zuen Munduko



Txosten hau, eta erreferentzia bihurtu nahi du kultura-aniztasunaren arloan. Arriskuan dagoen ondarea zaindu besterik ez da egin gehiegitan, eta kultura-aniztasunak harreman estua du kulturen arteko gaitasunak sustatzearekin, «identitate bakartuaren» kontrako antidotoa bilatzearekin, gobernantza-modu berriak aztertzearekin eta unibertsalki aitortutako giza eskubideen erabilera eraginkorra sustatzearekin, baina sormenaren munduko merkatuan dauden desorekak murrizteko ere balio du.

- **'Kultura eta garapena: etorkizuneko erronken erantzuna?' Sinposioa (Paris, 2009ko urriak 10)**³²: UNESCOk eta AECIDek Sinposio hau antolatu zuten, kulturen inguruko eztabaida intelektuala berpiztearren, garapen iraunkor eta bidezkoaren gako berri gisa.
- **'Arriskuaren kudeaketa kultura finantzatzean' Kongresua (Paris, 2010eko maiatzak 16 eta 17):**³³ Kulturen eta garapenaren arteko harremana aztertzeko eta sustatzeko konpromisoaren baitan, UNESCOk bi eguneko sinposio bat antolatu du, garapen bidean dauden ekonomien kultura eta sormen-sektoreak finantzatzearen arriskuak ikertzeko. Kulturak ahalmen handia duen arren garapen sozioekonomikorako eta pobrezia murrizteko, bazterturik jarraitzen du garapen-programa eta politiketan. Areago, kulturak ez du finantzaziorik jasotzen, gehienbat garapen bidean dauden herrialdeetan, zergatik eta inbertsio horiek arriskuak izan daitezkeelako, askotan uste okerra bada ere.


³¹ UNESCOren Munduko Txostena. Invertir en la diversidad cultural y el diálogo intercultural, UNESCO, 2009. <http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001847/184755s.pdf>

³² 'Cultura y desarrollo: ¿una respuesta a los desafíos del futuro?' (Paris, 2009ko urriak 10) <http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001876/187629s.pdf>

³³ 'La gestión del riesgo en el financiamiento de la cultura' (Paris, 2010eko maiatzak 16 eta 17) http://portal.unesco.org/culture/en/ev.php-URL_ID=40601&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

04. Nazio Batuen beste agentzia batzuk

Esan dugun bezala, UNESCO aitzindari izan zen gai honetan, baina Nazio Batuen Sistemako beste agentzia batzuk ere landu zuten arlo hori. 2004an, UNDPren (Nazio Batuen Garapen Programa) giza garapenari buruzko urteko Txostena 'Kultura-askatasuna gaur egungo mundu anitzean' izan zen. Nazioarteko adituen laguntzaz, Txosten horrek urrats bat gehiago egin zuen, eta kultura-askatasuna sartu zuen garapenaren barruan. UNFPAk arlo hori jorratu duen Txostenetako bat ere aipatuko dugu.



UNDP, 2004, GIZA GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA, KULTURA-ASKATASUNA GAUR EGUNGO MUNDU ANITZEAN ³⁴

«Kultura-aniztasunari erantzutea da gure garaiko erronka nagusietako bat».

GGT 2004, UNDP

Hitzazurrean bertan, kulturak herrien garapenerako oztopo izan daitezkeelako ideia apurtu nahi du Txostenak, eta garapen-politiketan kulturaren ikuspegia txertatzeko elementuak erakusten ditu. Agiriaren arabera, «munduak Milurtekoko Garapen Helburuak erdietsi eta pobrezia behin betiko erauzi nahi badu, lehenik asmatu egin behar du kulturalki inklusiboak eta anitzak diren gizarteak eraikitzen; hori beharrezkoa da herrialdeek beste lehentasun batzuei ekin ahal diezaieten, hala nola ekonomia-hazkundera eta osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak eskaintzeari eta, horretaz gainera, jende guztiaren kultura-adierazpen osoa ahalbidetzea garapenaren helburu garrantzitsua da».

Izan ere, giza garapenaren oinarria, ikusi dugun bezala, jendearen aukerak zabaltzea da, hau da, jendea-ri bizimodua aukeratzeko era ematea, bai eta erabaki hori hartzeko tresnak eta aukerak eskaintzea ere. Ohiko lehentasunak ordezteko asmorik gabe, UNDPk bere garapen-estrategietan kultura-askatasuna txertatzen saiatzen da, oinarrizko lehentasunak osatu eta indartu nahian. «Askok uste dute aniztasuna garatzen uztea onuragarria izan daitekeela teorian, baina praktikan ahuldu egin dezakeela estatua, gatazkak sortu eta garapena atzeratu».

«Kultura-askatasuna giza garapenaren funtsezko zatia da. Izan ere, bete-betean bizi ahal izateko, garrantzitsua da norberaren nortasuna aukeratu ahal izatea –norbera zer den–, besteenganako errespetua galdu gabe edo norbera beste aukeretatik baztertu gabe». Nortasunaren arazoa da, beraz, Txosten honek zuzenean lantzen duen gaitako bat.

Txostenak honako hau dio kultura-aberastasunaz ere: «garapenaren gaian askotan ahazten da garapen bidean dauden herrialdeen kultura-tradizioak aberatsagoak eta anitzagoak direla iparreko herrialde garatuetakoak baino».

Ez omen dugu pentsatu behar kultura-gaiak gutxiengoen gauza direnik, edo nortasun ugari dituzten estatuaren gauza: «aniztasunari erantzutearen eta kultura-nortasunak errespetatzearren erronka ez dagokie soilik 'etnia anitzeko estatu' batzuei, ia ez baitago erabat homogeneoa den herrialderik. Gaur egun, herrialdeak kultura anitzekoak dira». Hori areagotu egin da nazioarteko migrazioekin, eta gai horixe landu zuen gerora UNDPk 2009ko Txostenean, 'Harresiak gaindituz: mugikortasuna eta giza garapena'.

Txostenak mitoak apurtzeari ekiten dio: «kultura-nortasunak aitortu eta aniztasuna bultzatzen duten politikek ez dute sortzen hausturarik, gatazkarik edo praktika autoritariorik, eta ez dute murrizten garapen-erritmoa». Ideia horiek ez dira beti izan nazioarteko komunitate osoaren gustukoak (ezin dugu ahaztu nortasunaren arazoa nazioarteko politikaren gatazka arraziotzat hartu izan dutela askotan).

Txostenaren argudio nagusia da gizarteek onartu egin behar dituztela, eta ez zapaldu, nortasun ugari eta osagarri horiek. XXI. mendeko legegileen erronka da jendearen aukerak zabaltzea –jendeak bere nortasunari uko egin behar izan ez diezaion gizarteko eta ekonomiako aukerak edukitzeko–, eta gutxiengoen bazterketa kulturala deuseztatzen jarraitzea.

Era horretan, aski zabalduak dauden hiru mito hausten dira:

1. Kultura batzuek beste batzuek baino garapen-aukera gehiago dituzte.

³⁴ PNUD, 2004, Informe de Desarrollo Humano, La libertad cultural en el mundo diverso de hoy http://hdr.undp.org/en/media/hdr04_sp_complete1.pdf

Argazkia: UNESCO – V. Gudac



2. Kultura-aniztasunak beti sortzen du balioen in-guruko talka.
3. Kultura-aniztasuna garapenerako oztopoa da.

UNDPren iritziz, «ez dago harreman argirik kulturaren eta garapenaren artean. Talde baten kulturak bere garapenean eragiten duela pentsatzea oso erakargarria da intuizio-mailan, eta kultura-estereotipoak direnak munduko egoeraren azalpen bihurtzen ditu». Era horretan, apurtu egiten du sektore batzuen artean hain zabaldua dagoen determinismo kulturalarekin.

Txostenaren egileetako bat den Amartya Sen-en eskutik, nortasun ugari eta osagarrien gaia lantzen da: «Nortasuna ez da dinamika baztertzailer bat. Gizabanakoarentzat garrantzitsua da nortasunaren zentzua edukitzea, eta kultura-balioak eta -loturak partekatzen diren talde bateko kide izatea. Baina gizabanakoa hainbat talderekin identifika daiteke. Jendeak hainbat nortasun ditu: herritartasuna (frantsesa), generoa (emakumea), arraza (jatorriz mendebaldeko afrikarra), hizkuntza (thailandiera, txinera eta ingelesa aise hitz egitea), politika (ezker-tiarra) eta erlijioa (budista)». Argi esaten du honako hau ere: «Nortasuna ez da tamaina jakineko kutxa karratu bat».

«Nortasuna aukerakoa ere bada: multzo horien baitan, gizabanakoak bati edo besteari eman diezaiokete lehentasuna, aldaketen edo gorabeheren arabera...». Gai horixe landuko du Friburgoko Kultura Eskubideei buruzko Adierazpenak, bai eta Nazio Batuetako Giza

Eskubideen Kontseiluko kultura-eskubideen aditu beregainak ere, gero aztertuko dugunak.

Tradizioaren eta giza garapenaren arteko eztabaida beroan (gaur egun ere aztertzen da kultura-eskubideak nazioartean argitzeko prozesuetan), Txostenak dioenez, «tradizioa kosta hala kosta irauarazteko jarrera hertsia galarazi egin dezake giza garapena. Asko erreskata daiteke balio eta praktika tradizioaletatik, eta asko da giza eskubideen balio unibertsalekin bat datorrena».

Definizioak

Baina, zer da kultura-askatasuna? Txostenaren arabera, kultura-askatasuna da gizabanakoaren aukerak zabaltzea, eta ez balioak eta praktikak itsu-itsuan irauaraztea, tradizioei leial izan nahian. Kultura ez da balioen eta jardunbideen multzo estatiko bat: etengabe birsortzen da, pertsonak beren balio eta jardunbideak zalantzan jarri, moldatu eta birdefinitu egiten baitituzte, errealitatea aldatu eta ideiak trukatu ahala.

Beraz, argi eta garbi azpimarratzen du kultura-askatasunaren eta aniztasunaren errespetua ez direla nahasi behar tradizioa defendatzearekin. Kultura-askatasuna da jendeak aukeratu duena bizi eta izan ahal izatea, eta beste aukera batzuk ere edukitzea.

Txostenak baztertu egin zuen etnia anitzeko herrialdeek garatzeko gaitasun gutxiago dutenik eta, bere iritziz, ez dago harreman argirik, ez onik ez txarrik, kultura-aniztasunaren eta garapenaren artean.

Kultura-askatasunak esan nahi du jendeari bere nortasuna aukeratzeko aukera –eta nahi duten bizimodua egiten uztea– axola zaizkien beste aukeretatik baztertu gabe (hala nola hezkuntza, osasuna edo enplegua).

Txostenak dioenez, hain beharrezkoak diren politika multikulturalak zabaltzeko, estatuek kultura-desberdintasunak aitortu behar dituzte beren konstituzio, lege eta erakundeetan. Horretaz gainera, formula politikoak behar dira gehiengo edo nagusi diren taldeek ukatu edo ezeztatu ez dituzten talde jakinen interesak, nahiz gutxiengoak nahiz historikoki bazterturik egon diren gehiengoak.

Hizkuntzen arloan, Txostenak dioenez, ongi sendotutako demokrazietan ere bazterketa gehien eragiten duena politika elebakarra da. Hizkuntza bat aitortzea ez da erabiltzea soilik. Hizkuntza eta haien kultura errespetatzea esan nahi du, eta gizartean bete-betean txertatzea.

Globalizazioak kulturaren eduki dezakeen eraginaz ere badihardu, eta nazioetako eta tokiko nortasunak mehatxa ditzakeela esaten du. Agiriaren arabera, konponbidea ez da kontserbadorismo edo nazionalismo isolatzaile itzultzea, baizik eta politika multikulturalak diseinatzea, aniztasuna eta pluralismoa sustatzen dutenak. Estatuek kultura aitortzeko politikak eduki ditzakete, kontraesanekin egon gabe giza garapenaren beste helburu eta estrategia batzuekin.

Argazkia: UNESCO – P. Howard



Kultura-askatasuna eta giza garapena

Txostenak kultura-askatasunaren garrantzia nabarmentzen du, eta halakorik ezak eragin ditzakeen galera pertsonalak eta sozialak. Kultura-askatasuna ere aintzat hartzen duen garapenaren ikuspegi zabal horrek ez ditu ahazten oinarriko konpromisoak, baina aitortzen du kultura-askatasuna ukatzeak gabezia larriak eragin ditzakeela, jendearen bizia eskatu eta kultura-loturak oztopatu.

Kultura-askatasuna giza askatasunaren esparru garrantzitsua da, erabakigarria baita jendea bere lehentasunen arabera bizi dadin, eta eskura dauden aukeren artean hautatu ahal izan dezan. Kultura-askatasuna sustatzeak lehentasuna izan behar du giza garapenaren barruan, eta aukera sozial, politiko eta ekonomikoez haratago joatea exijitzen du, horiek berez ez baitira kultura-askatasuna bermatzeko gai.

Ardatza ez da tradiziozko kulturaren garrantzia, baizik eta kultura-askatasunak eta -aukerak.

Kultura-aniztasunaren eta kultura-askatasunaren arteko harremanari dagokionez, Txostenaren esanetan, une honetan dagoen kultura-ugaritasuna modu kontserbadorean zaintzea izan liteke kultura-aniztasuna sustatzeko modurik simpleena, baina horrek kultura-askatasuna ukatzera eraman gaitzake, jendea behartuz gero bere historia kulturala abandonatzera eta bere kultura-adierazpenak aldatzera.

Kultura-jardunbideetan aniztasuna sustatzea garrantzi handikoa izan daiteke, kultura-askatasuna egoteko aniztasuna egon behar baitu, baina horrek ez du esan nahi kultura-aniztasuna besterik gabe defendatzea. Txostenaren ustez, akats larria da kultura-aniztasuna edozein modutan baliotsutzat hartzea.

Laburbilduz, «kultura-aniztasunaren balioa ez dago bere baitan, baizik eta kultura-aniztasunarekin duen lotura positibo sendoan». «Aniztasuna bera ez da helburua. Gizakien askatasunen eta aukeren emaitza da, eta aukeratzeko orduan beste alternatiba batzuk egotea eskatzen du».




UNFPA-MUNDUKO BIZTANLERIAREN EGOERA 2008: KONBERGENTZIA-EREMUAK: KULTURA, GENEROA ETA GIZA ESKUBIDEAK³⁵

2008an, UNFPA (Nazio Batuen Biztanleria Funtza) ir-moa da Munduko Biztanleriaren Egoerari buruzko Txostenaren hasieran: «Kultura garapenaren erdian dago eta egon da beti. Gizakien bizitzako alderdi natural eta funtsezko bat denez, kultura txertatu egin behar da garapen-politika eta -programetan». Txostenak generoa, kultura eta garapenaren arteko lotura ere jorratzen du, giza eskubideak zeharkakotasunez landuz.

³⁵ UNFPA- Munduko Biztanleriaren Egoera 2008: Konbergentzia-eremuak: kultura, generoa eta giza eskubideak: <http://www.unfpa.org/swp/2008/presskit/docs/sp-swop08-report.pdf>

05. Beste tresna batzuk

Kultura eta garapenari buruzko Nazio Batuen agiri esan-guratsuenak aztertu ondoren, garapen-lankidetzarako beste zenbait eragileren tresna batzuk aurkeztu nahi ditugu, gai honetan interesgarriak izan daitezkeenak. Aipagarrien artean daude AECIDen (Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren aldeko Espainiar Agentzia) Kultura eta Garapen Estrategia, Iberoamerikako Kultura Gutuna eta Kulturaren Agenda 21.



Kultura eta Garapen Estrategia - AECID³⁶

Ekintza ugarietz gain, hala nola UNDP-Espainia Funtza Milurtekoaren Garapen Helburuak lortzeko –Leiho Tematiko berezi bat dauka Kultura eta Garapenean³⁷, eta Milurtekoaren Garapen Helburuetan kultura agerian jartzeko balio du– AECIDek (Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenaren aldeko Espainiar Agentzia) ‘Espainiar Lankidetzaren Kultura eta Garapen Estrategia’ aurkeztu zuen. Agentziaren esanetan lehenagoko espainiar lankidetzaren ekintzen ‘herentzia’ da, baina, aldi berean, sistematizatu eta koherentzia ematen die kultura-lankidetzaren barruan egindako ekintzei.

Esparru teorikoan arazo interesgarriak jorratzen ditu, adibidez ‘eskura dagoen eta eskuratzen den kultura’, eta, bere ikuspegitik, kultura jadanik ez da gauza geldia, emana, komunitateetan dagoena eta aldaezina. Estrategia horren beste gai interesgarri bat eskubideen ikuspuntuari emandako garrantzia da: «kultura-bizitzan eragina duten giza eskubideak garatzen jarraitu behar da».

Estrategia horrek aitortzen du UNESCO eta UNDP bezalako nazioarteko erakundeek izandako papera garapenean kultura sustatzen, baina oraindik egiteko

dagoen bidea ere aipatzen du: «lankidetzaren ekintzetan kultura txertatu ahal izateko», hainbat ekintza egin beharko direla esaten du. Ekintza horietako batzuk, irakurleak ikusiko duen bezala, lan honetan aztertutako beste egile eta erakunde batzuek ere aipatzen dituzte. Puntu hauek praktikoak dira eta, batez ere, kultura-lankidetzaren ekintzara bideraturik daude:

- Kultura-errealitateen diagnostiko zehatzak egitea (identifikatu, diseinatu eta formulatzea).
- Kultura-eraginaren adierazleak erabiltzea.
- Kulturak garapen-lankidetzarako proiektu eta programei egindako ekarpena aztertzea, nahiz maila ez-material edo sinbolikoetan (bizitza politikoa, gizarte-kohesioa, nortasuna...) nahiz materialetan (enplegua, ekonomia, turismoa...).
- Hizkuntzen eta kultura-agerraldi minoritarioen errespetua eta integrazioa bultzatzea.
- Kultura-aniztasunaren kontzeptua integratzea.
- Giza eskubideak errespetatzen ez dituzten jarrerak defentsiboak eta baztertzailak saihestea.

Lan honetarako, 7 lerro estrategiko hauek identifikatu ziren:

1. Kultura-kudeaketarako giza kapitala prestatzea, kultura- eta garapen-proiektuak azpimarratuz:

Gaur egun gutxiegi dira gai horretan prestatu-rik dauden eragileak, eta kultura eta garapenari buruzko prestakuntza-prozesuak egitea proposatzen da.

2. Kulturaren dimentsio politikoa, garapenari laguntzen dion heinean:

Kultura-politikek gobernantza eta gizarte-kohesioa hobetzeko egin ditzaketen ekarpenak balioestea.

3. Kulturaren dimentsio ekonomikoa, garapenari laguntzen dion heinean:

Kulturak ekonomiari hazten laguntzea nahi da, kultura- eta jolas-enpresak, -industriak eta -erakundeak sustatuz, sortuz eta ekoizpena bultzatuz.

4. Hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremana eta osagarritasuna:

Kultura-egiturak eta -edukiak indartzea oinarritzko hezkuntzan eta alfabetatzean, era horretan kultura-agerraldiak hobeto ulertzeko eta parte-hartzea areagotzeko.

5. Garapenerako Kultura Ondarearen kudeaketa iraunkorra:

AECIDen lan-ildo klasikoetako bat da kultura-ondarea zaharberitzea eta babestea, baina Estrategia haratago doa: berariaz txertatzen du ondare ez-materiala, eta izaera multisektoriala ematen dio.

³⁶ Espainiar Lankidetzaren Kultura eta Garapen Estrategia http://www.aecid.es/export/sites/default/web/galerias/cooperacion/Cultural/descargas/Estrategia_CxD.pdf

³⁷ <http://www.mdgfund.org/es/content/cultureanddevelopment>

Gatazketan eta hondamendi naturaletan jardutearen garrantzia ere aipatzen du.

6. Garapenean eragina duten komunikazioaren eta kulturaren arteko harremanak:

Komunikazioaren eremuan prozesu autonomoak sustatzea, eskualde bakoitzeko errealitatera egokituak, bai eta jendea trebatzen eta hedabideak eskuragarri jartzen lan egitea ere.

7. Kultura-eskubideak aitortzeko prozesuak indartzea: Estrategiak ezartzea ez baizik aitortzea aipatzen du eta, gure ustez, kultura-eskubideak nazioartean argitzeko oraindik egiteko dagoen bidea azpimarratzen du Agentziak. Kulturari buruzko legeen azterketak eta kultura-bizitzan parte hartzeari buruzko gaiak sustatu beharra aipatzen du.

Espainiar Lankidetzaren Kultura eta Garapen Estrategiak, beraz, beste agentzia eta egile batzuek aztertutako gaiak ere hartzen ditu aintzakotzat, adibidez kulturak hezkuntzarekin duen lotura, kulturaren eta giza eskubideen arteko harremana edo kulturaren dimentsio politikoa.

Estrategia hori berritzailea da Espainiako garapen-lankidetzan, baita Europan ere, sintetizatu eta sakondu egiten baitu kultura eta garapenaren arloko lana. Gure iritziz, tresna egokia izan daiteke tokiko beste erakunde batzuentzat ere, bai eta gizarte zibileko erakundeentzat ere, nazioarteko garapen- eta lankidetzaprozesuetan kultura ere txertatu ahal izateko.

Iberoamerikako Kultura Gutuna³⁸

2007an onartu zen Iberoamerikako Kultura Gutuna, Kultura Ministroen X. Iberoamerikako Biltzarrean, herrialde bakoitzaren barne-aniztasuna garatzeko helburuarekin, eta herrialde sinatzaileen artean kultura-lankidetzako ekintzak koordinatzeko helburuarekin. Kultura Adierazpenen Aniztasunari buruzko UNESCOren Konbentzioaren³⁹ oinordekoa da Gutun hori, eta kultura eta bere aniztasuna gizarte-kohesioaren oinarritzat finkatzeaz gain, garrantzi berezia ematen zaio kultura-eskubideak babesteari eta kultura-bizitzan parte hartzeari.

Kulturaren Agenda 21.⁴⁰

2004an onartutako Kulturaren Agenda 21 da «mundu osoari bideratutako lehen agiria, hiriek eta tokiko gobernuek kultura garatzeko oinarriak finkatu nahi dituen». Tresna hori tokiko erakundeekin elkarlanean jaio da, tokiko kultura-estrategiak, kultura-es-

kubideak eta -erantzukizunak edo kultura-eraginaren ebaluazioa ezartzeko. Gaur egun, 300etik gora dira Kulturaren Agenda 21i atxikitako hiriak.

67 artikulua ditu, gai hauei buruzkoak: Kultura eta giza-eskubideak; Kultura eta gobernantza; Kultura, iraunkortasuna eta lurraldea; eta Kultura eta gizarteratzea. Agenda harremanetan dago, beraz, beste organismo batzuek nazioartean identifikatutako eremuekin, eta ekintza horiek tokian-tokian ezartzen laguntzen du.

06. Kultura-eskubideak

Kulturaren eta garapenaren arteko harremana biltzeko ahaleginetan, kontuan hartu behar da kultura-eskubideak gaur egun bizitzen ari diren prozesua. Izan ere, 2009an, nazioarteko hainbat instantzia aritu dira horretan –ondoren deskribatzen dira–, badirudi kultura-eskubideak eta haien edukia argituz doala, eta hori ezinbestekoa da haien ezarketaz hitz egiteko.

Garapen-ekintzetan gero eta gehiago txertatzen da eskubideen ikuspegia eta, logika horri jarraituz, kultura-eskubideen edukia nazioartean argitzea garrantzitsua izan daiteke eskubideen kultura-ikuspegia txertatzeko garapen-lankidetzan.

Kultura-eskubideen eta garapenaren arteko harremana landu dute hainbat adituk ere, Gonzalo Carámbularen hitz hauetan agertzen den bezala: «desberdintasun handiak daude kultura-eskubideen eskuragarritasunari dagokionez; bistan da ezin izan direla konpondu egoerarik larrienak: marjinalitateak eta desorekek komunitate askoren kultura-garapena oztokatzen dute eta kultura-ekosistemaren aniztasuna arrisku biziartzen dute»⁴¹.

UNESCOn Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpenari berriro helduz, bertan jadanik aipatzen zen giza eskubideak kultura-aniztasunarekin lotu beharra: «kultura-aniztasunaren izenean ezin dira urratu ez mugatu nazioarteko zuzenbidean bermatutako giza eskubideak». Besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Gida Planak ere ideia hori aipatzen du: «dimentsio kulturalak kontuan izan behar du kultura-nortasunaren defentsa, baina, betiere, giza eskubideen barruan».

Ildo horretan aipatzen dira kultura-eskubideak Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean –7. artikulua: «Pertsona orok du eskubidea

³⁸ Carta Cultural Iberoamericana, http://www.oei.es/cultura/carta_cultural_iberamericana.htm

³⁹ Ikusi Prieto de Pedro, Jesús-en txostena hemen: 'Presente y Futuro de los Derechos Culturales', UNESCO Etxea, Bilbo, 2010.

⁴⁰ Kulturaren Agenda 21, www.agenda21culture.net

⁴¹ Carbó Ribugent, Gemma (koordinatzailea); *La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo*, Documenta Universitaria, Girona, 2008.

Argazkia: UNESCO – R. Delongaro



komunitatearen kultura-bizitzan libreki parte hartzeko, arteez gozatzeko, eta zientziaren aurrerapenetan eta haien onuretan parte izateko»–, eta Nazio Batuen 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunaren 15. artikuluan, batik bat 15.1.a-n: «pertsona orok du eskubidea kultura-bizitzan parte hartzeko».

Kultura-eskubideen arloko aditu esanguratsu batzuek egindako lanei begirada bat emanaz gero argi ikusten da eskubide horiek argitu eta zehaztu behar direla, hurrena ezarketaz hitz egin ahal izateko. Ildo horretan, aipagarria da giza eskubideei buruzko idazle ospetsua den Januzs Symonides aditu poloniarra eta UNESCOren Giza Eskubideen Zuzendari ohiak nola deitzen dien kultura-eskubideei: «giza eskubideen kategoria baztertua»⁴². Friburgoko Taldeak (Suitza) zioen moduan, kultura-eskubideak giza eskubideen 'kategoria azpigaratua' dira. Aditu Talde horrek 2007an Kultura Eskubideen Adierazpena⁴³ aldarrikatu zuen, eta horixe izan da gizarte zibilaren ahaleginik esanguratsuenetakoa bat kultura-eskubideen esanahia nazioartean argitzeko. Horiez gain, Prieto de Pedro aditu espainiarrak honela deitzen die kultura-eskubideei: «giza eskubideen seme hondatzailea». Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko buru Jaime Marchán Romerok ere adierazi zuenez, «kultura-eskubideak ez dira aintzat hartzen»⁴⁴ Batzordeko lanen artean.

Adierazpen horiek guztiek erakusten digute eskubide horien gaur egungo egoera. Era berean, aditu

gehienek dioten moduan, oraindik hor dago kultura-eskubideen problemetako bat, hau da, sarridan guxtiengo etnikoen eta kulturalen eskubideen inguruko lanarekin lotzen direla.

Kulturaren Eskubidea

Horrekin batera, kulturaren eskubidea zuzenbidearen barruko diziplina zehatz eta espezializatu baten forma ari da hartzen. Dena dela, eboluzio hori eta diziplina horrek zuzenbidean duen presentzia oraindik mugatua da, kulturaren inguruko legeriak orain arte ez baitu aitorpen eta zabalkunde handirik izan, ez eta zuzenbidearen filosofiaren azterketa sakonik jaso ere, zuzenbidearen beste adar batzuen aldean, hala nola merkataritza, ekonomia, zergak, zigorrak, etab.

Halaber, kulturaren inguruko legeria mosaiko baten moduan joan da osatzen: alde batetik, arautu dituen alderdiak beti ondasunari lotuak egon dira (ondasun intelektuala eta egile-eskubideak) eta, bestetik, egindako legeak eta arauak kultura elitistaren bidetik joan dira, arte ederren eta estetikaren ildotik. Horrela, Jesús Prieto de Pedrok dioen bezala kulturaren eskubideari eusten dioten hiru zutabeen inguruan, XIX. mendeko ia legeria guztiek kultura-ondarea eta arte-zentroak arautzen zituzten, hala nola museoak, artxibategiak eta liburutegiak. Kultura-ondarearen legeria horiek, gainera, modu klasikoan edo tradizionalan ikusten zuten ondarea, hau da, ondasun materialari bakarrik begiratzen zioten, batik bat arkitekturari eta monu-

⁴² Symonides, Janusz; Cultural Rights: new dimensions and challenges, Off-Print, Thesaurus Acroasium, Vol. XXIX. liburukia.

⁴³ www.droitsculturels.org

⁴⁴ Ikusi Marchán Romero, Jaime, hemen: 'Presente y Futuro de los Derechos Culturales', UNESCO Etxea, Bilbo, 2010.

mentuei (ondare 'kultu' horren bestaldean legoke 'folklorea' esaten zaiona, kulturen agerraldi ez-materialak, legegileen interesekoa ez zena). Azkenik, aipatzekoa da XX. mendean jadanik legeek alderdi berri bat hartu zutela kontuan kulturaren baitan: kultura-industriak, beren ekonomia-eremua babesteko eta sustatzeko araudi bati lotuak.

Horretaz gainera, hainbat lege nazional daude 'adierazpen-askatasuna' edo 'katedra-askatasunaren' inguruan ere, prentsari, literaturari edo irakaskuntzako katedrari loturik.

Baina lege horiek benetako erantzuna ematen al diote kultura bezain konplexua den fenomeno bati? Kultura-prozesuak, gaur egun etengabe aldatzen eta elkarri eragiten ari diren prozesutzat hartuak, benetan al daude babesturik lege horiekin? Ala lege partzialak dira, kultura elite politiko eta ekonomikoekin lotzen jarraitzen dutenak? Adierazpen-askatasuna babestea nahikoa berme al da kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea bermaturik dagoela esateko? Gutxiengoan kultura-eskubideak nola geratzen dira islaturik estatuen baitan?

Izan ere, legeek ez dute kultura modu integralean ikusten. Mexikoko 1917ko Konstituziora arte konstituzio-testu bakar batean ere kultura hitza ez agertzeak ere erakusten du kulturaren inguruko legeriak izan duen garapena. Prieto de Pedrok dioen bezala⁴⁵, azken konstituzioetan kultura hitza gero eta gehiago azaltzea ez da moda ez kasualitatea, kulturaren eta zuzenbidearen arteko harremanaren eboluzioaren ondorioa baizik, zuzenbideak zentzu zabalagoan hartzen baitu kultura, gaur egungo beste zientzia batzuek bezala, hala nola antropologiak.

Gaur egungo argitzapena nazioartean

Lehen genioen moduan, kulturaren kontzeptuak eztabaida ugari sortzen du, baina are zailagoak dira kultura-eskubideak definitzeko eta zehazteko zailtasunak. Horrela, ez da harriztekoa haien kontzepzio teorikoa hain mugaturik egotea. Eremitan, aipatzekoa da Friburgoko Taldearen lana: 2007an egin zuten Friburgoko Kultura Eskubideen Adierazpena, eta mugarrria izan zen gai hori nazioartean aztertu beharraz ohartarazteko.

Adierazpenak dioenez, «kultura-aniztasuna ezin da babestu kultura-eskubideak behar bezala indarrean jarri gabe». Adierazpen hori gizarte zibilaren erronka handia izan zen, eta horixe da kultura-eskubideen edukia eta esparrua modu pribatuan kodetzearen eta nazioartean argitzearen adibiderik behinena. Kultura-eskubideak giza-eskubideen barruan daudela berres-

ten da eta, beraz, ezin dela jausi kultura-erlatibismoan. Aipamen ugari eskaintzen zaizkio kultura eta garapena binomioaren hainbat elementuri: kultura, kultura-nortasuna, ondarea, kultura-komunitatea, kultura-askatasuna, hezkuntza eta prestakuntza, kultura-lankidetzak, gobernantza demokratikoa, ekonomia, eragile publikoen eta nazioarteko erakundeen erantzukizuna, etab.).

Kultura-eskubideak azpigaraturik edo marjinalizaturik egotetik kultura-eskubideen etorkizunerako erabakigarria den egoera batera igaro gara. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zenetik 60 urtera eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna berretsi zenetik 40 urtera, Nazio Batuen baitan gaur egun bi prozesu daude, agian esanguratsuak izango direnak eskubide horien edukia zehazteko.

Kultura-bizitzan parte hartzeko eskubideari buruzko Ohar Orokorra⁴⁶

Lehenbizikoa, 2009ko azaroaren 19an Genevan onartu berri den 21. Ohar Orokorra da, Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 15.1a artikuluar buruzkoa, «kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidearen» inguruan. Agiri horrek 'lurrera ekarri' nahi du artikulua horren esanahia. Oharrak eskubide horri buruzko adierazleak eskaintzen dizkie gobernuari eta administrazioei, Ituna ulertu eta legeria nazionaletan ezarri ahal izateko.

Tresna hori, legez loteslea ez izan arren, Paktuak horretarako izendatutako erakundeak egindako baimendutako interpretazioa da, eta beste kasu batzuetan (adibidez, gizakiak ura eskuratzeko eskubidea) garrantzitsua izan da ulergaitzagoak diren eskubideak nazioartean argitu ahal izateko. Onartu berria denez oraindik ezin dugu jakin testua zenbateraino hedatuko den, baina 20 orriko Ohar horrek, EESK Batzordeko kideez gain aditu beregainen laguntzarekin idatziak, agian kultura-eskubideak zehazteko prozesu interesgarriak sortuko ditu. Oharraren kontalari eta Batzorde horretako buru den Jaime Marchán Romerok dioen moduan, Oharra onartzearekin «ez da lana amaitzen, eta agian askoz lan luzeago bat egitera gonbidatzen du»⁴⁷. Ezin dugu aipatu gabe utzi, baina, Batzordeak ez duela orain arte adostasuna lortu Itunaren barruan kulturari dagokionean, nahiz eta aurretik ere saiatu izan.

Ohar Orokorrek baditu alderdi interesgarri batzuk, garrantzitsuak izan daitezkeenak nazioarteko lankidetzan. Alde batetik, eskubidearen esanahia osatzen duten hitzak definitzen saiatzen da, hau da: 'pertsoneko oro', 'kultura-bizitza' eta 'parte hartzea'.

Marchánek honako hau dio: «Batzordeak estatu

⁴⁵ Prieto de Pedro, Jesús; *Cultura, Culturas y Constitución*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2006.

⁴⁶ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea: <http://www2.ohchr.org/spanish/bodies/cescr/index.htm>

⁴⁷ Ikusi Marchán Romero, Jaime, hemen: *Presente y Futuro de los Derechos Culturales*, UNESCO Etxea, Bilbo, 2010.

Argazkia: UNESCO – A. Mader



kideei adierazi nahi die 15. artikulua ikuspegi antropologikoa duela, Itunaren beste artikulua bakar batean ere ez baita aipatzen bizitza hitza, hau da, kultura-bizitzan parte hartzea. Itunean bertan dator kulturak bizi-elementu bat duela, hau da, elementu dinamiko bat, eboluzio-elementu bat, historikoa, oraina eta geroa dituena (...). Kultura, beraz, bizi-prozesu gisa definitu zen». Hitz horietan argi ikusten da Itunak berak kulturaren inguruko lanaren berezitasuna azpimarratzen duela, bere artikuluetan bizitza hitza erabiltzen duen elementu bakarra baita.

Batzordeak kultura-askatasunaz ere hitz egin zuen Ohar honetan: «kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea askatasun bat da: askatasun horrek esan nahi du, lehenik, estatuak ez duela interferitu behar eta, bigarrenik, ekintza positiboak gauzatu behar dituela pertsona libreki adieraz dadin eta bere kultura-asmoak bete ditzan». Lan honetan zehar luze eta zabal aipatu ditugun politiken papera ere ikusten dugu.

Kulturaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa ere aipatzen da Ohar Orokorrean, kontalariak dioen bezala: «Ohar Orokor honen osagairik iraultzaile edo aurrerakoiena, agian, pertsona oro esanahia da, ingelesez everyone dena. Eztabaida luze eta bero baten ondoren adostu zen pertsona orok indibiduala nahiz kolektiboa esan nahi duela».

Garapen-lankidetzarako ekintzetan kultura-bizitzan parte hartzeari buruzko Ohar Orokorra aplikatzearen

beste puntu bat da arriskuan dauden taldeen aipamena, hau da, beren eskubidea murriztua izateko aukera gehiago dituzten taldeak, adibidez emakumeak, haurrak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak, gutxiengoak, etorkinak, herri indigenak eta pobrezian bizi diren pertsonak. Beraz, kultura-eskubideen eta garapenaren arteko harreman estua ikusten dugu.

Ohar horretako 76 paragrafoak zehatz-mehatz azter daitezke, aipamen guztiek eragin zuzena baitute garapen- eta lankidetz-ekintzetan, baina tankera horretako lanak aise gaindituko lituzke gure agiri honen mugak.

Ohar hori tokiko errealitateetara zabaldu eta hurbildu nahian, UNESCO Etxea bezalako erakundeek lagunduta, UNESCO kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea ezartzearen berezitasunak moldatzen eta aztertzen ari da munduko hainbat eskualdetan, Latinoamerikan martxan jartzeko ideiarekin.

Kultura Eskubideen arloko Aritu Beregainaren Mandatua

Lehen ere esan dugu 2009an nazioarteko bi mugarri ipini direla kultura-eskubideen arloan. Lehenbizikoa, EESK Batzordearen Ohar Orokorra onartzea, eta, bigarrena, joan den urrian Farida Shaheed Nazio Batuetako Kultura Eskubideetarako Giza Eskubideen Kontseiluko aritu beregain izendatzea. Arituaren Mandatu⁴⁸ horrek erakusten du kultura-eskubideen gaiak sortzen

⁴⁸ Eskubide kulturalen arloko aritu beregain baten mandatua, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseilua.

http://ap.ohchr.org/documents/S/HRC/resolutions/A_HRC_RES_10_23.pdf

duen interesa Nazio Batuetako Giza Eskubideen organoetan. Izendapenetik hona hain denbora gutxi igaro denez, oraindik ezin da aztertu zer bilakaera izango duen, baina azpimarragarria da 3 urteko mandatu horrek eskatzen duena, hau da, «kultura-eskubideak sustatzeko eta babesteko gaur egun dauden oztopoak gainditzeko bideak aztertzea». Era berean, esanguratsua da mandatuan bertan kultura-eskubideen kontrako oztopoak aipatzea. Adituaren zeregina da ere «kultura-eskubideen edukia eta esparrua hobeto argitzeko azterketak egitea».

Eraz antzeman daiteke, bada, zer lotura egon daitezkeen EESK Batzordearen Ohar Orokorren eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluko adituaren mandatuaren artean. Beharrezkoa da bi prozesu horiek elkar osatzea eta nazioarteko erronkak elkarrekin identifikatzea, politika publikoek kultura-eskubideak errespetatzen dituzten legeak ezar ditzaten.

Aditu beregaina Kontseiluaren 14. saioan aurkeztu zen Giza Eskubidearen Kontseiluaren aurrean, 2010eko maiatzaren 31n. Bere Txostenean⁴⁹, adituak giza eskubideen eta kultura-aniztasunaren arteko harremana aztertu zuen. Horri buruzkoa da Nazio Batuen hainbat adituk Kultura Aniztasunaren Munduko Egunean egindako Adierazpena ere, 2010eko maiatzaren 21ekoa⁵⁰. Bertan adierazienez, giza eskubideak kultura-aniztasuna sustatzeko tresnak dira, eta kultura-aniztasuna loturik doa giza duintasunarekin, adituaren Txostenean ere esaten den bezala. Era berean, adituak 3 urteko bere mandatuan landuko dituen hainbat puntu proposatu dizkio nazioarteari, babesa eta laguntza eskatuz UNESCO bezalako erakundeei eta gizarte zibileko erakundeei.

Kultura-eskubideen etorkizuna

Nazioarteko bi prozesu horiez gain, aipagarria da kultura-eskubideen arloan lan egiteko interesa ere. Hala ikusi da joan den urrian Parisen, UNESCOren Biltzar Nagusian –erakundearen gobernu-organoren–, datozen bi urteetarako bere ekintza-planen barruan sartu baitu kultura-eskubideak lantzea, adibidez lehen aipatutako kultura-bizitzan parte hartzeko eskubideari buruzko eskualdekako azterketak. Gizarte-zibileko hainbat erakundek, UNESCO Etxea barne, kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidearen tokiko argitze prozesuarekin bat egiten dute, UNESCOrekin egingo dituzten azterketa erregionalen bidez. Badaude kultura-eskubideak nazioartean argitzeko ahaleginak egiten dituzten beste tresna batzuk ere, adibidez AECIDen Kultura eta Garapen Estrategia, edo Iberoamerikako Kultura Gutuna.

Horrela, bada, lehen zegoen kultura-eskubideei buruzko argitasun faltaren aldean, azken ekimen horiek pentsarazten digute agian urte batzuen buruan erabat desberdina izango dela kultura-eskubideen edukia, esparrua eta ezarketa, eta askatasunak garatzeko eta zabaltzeko ekintzetan txertatu ahal izango ditugula, maila lokalean nahiz globalean.

Hurbiletik jarraitu eta modu eraginkorrean parte hartu behar da, beraz, kultura-eskubideak argitzeko nazioarteko prozesuak, bai eta haien aplikazioak eta azterketak eskualde eta herrialde mailan ere, eta tresna horiek garapen-lankidetzan kultura-ikuspegiarekin nola aplikatzen diren ikusi, kultura-eskubideen sustapena eta gauzatzearen alde ekiteko helburuz.

07. Ondorioak

Orri hauetan zehar, kultura eta garapena teorikoki lotzeko nazioartean dauden tresnarik garrantzitsuenak aipatu ditugu, eta Nazio Batuenak azpimarratu ditugu, hain zuzen ere politika publikoetan eta garapenerako nazioarteko lankidetzak-ekintzetan kultura txertatzen dutenak.

Lankidetzaren eta garapenaren beste tresna batzuk ere aipatu ditugu, bai eta kultura-eskubideen edukia argitu ahal izateko nazioartean egiten ari diren prozesuak ere. Horrela, kulturak garapenaren maila guztiak zeharkatu ahal izateko berezko eta beharrezko elementuak identifikatu ditugu, eta egiaztatu dugunez, oraindik bide luzea eta, batzuetan, bide bihurria geratzen da, kultura behar bezala txerta dadin garapenaren eta lankidetzaren teorian eta praktikan. Ikusi dugunez, ordea, kultura ez da sistematikoki txertatzen garapen-ekintzetan eta gizarte-politikan eta, zenbaitetan, garapenerako oztopotzat hartzen da oraindik.

Kulturara eta kultura-askatasunera hurbiltzeko modu batzuek, gainera, nahasmena eta ziurgabetasuna sortzen dute kultura-aniztasuna kudeatzeko orduan. Nazioarteko kultura-lankidetzarako ekintzetan ikusten dugunez, kultura, kontzeptu holistiko gisa, nahasi egiten da kultura-adierazpen partikular eta zehatzekin. Izan ere, kulturak gai konplexua eta lantzeko zaila jarraitzen du izaten; kulturaren definizioari buruz ez dago adostasunik eta, horregatik, sarritan 'ikusezina' bihurtzen da garapenaren baitan.

Horrekin batera, kulturaren eta garapenaren arloan berriaz praktikara bideratutako tresnak eta materialak behar dira, kulturaren ikuspegitik lan egin nahi duten garapen-eragileentzat eta langile teknikoentzat. Kulturaren ikuspegi berandu sartu denez garapen-ekintzetan, garapenerako

⁴⁹ Aditu beregainaren txostena, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluko 14. saioa. http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/14session/A.HRC.14.36_sp.pdf

⁵⁰ Kultura Aniztasunaren Munduko Eguneko Adierazpena, 2010:

http://www2.ohchr.org/english/issues/cultural_rights/docs/statements/Statement_cultural_diversity21052010_sp.pdf

lankidetzan eta sentsibilizazioan edo giza eskubideak sustatzen lan egiten duten eragileek ez dute tresna teorikorik ez praktikorik kultura-aniztasuna eta haren kudeaketa txertatu ahal izateko beren ekintzetan eta lan-metodologietan.

Gure ustez, nolahi ere, azken urteotan kulturaren ikuspegia pixkanaka garapenean txertatzeko ekintzak eta ekimenak ari dira azaltzen. Kultura denez gizakiak bere nortasuna osoki garatzen duen esparrua, kultura-aniztasuna eta kultura-askatasuna sustatzeko beharraz ohartu behar dugu, funtsezkoak eta guztiz beharrezkoak baitira kultura-nortasuna asetzeko. Kultura-aniztasunak laguntzen du ere komunitate bakoitzeko kideek beren komunitatearen garapen-ildoak eza gutzen, garapena kanpotik ezarritako teoria izan gabe.

Baldintza horiek (askatasuna, kultura-aniztasuna eta kultura-nortasunaren errespetua) beharrezkoak izango dira kulturartekotasunak oinarri eta testuinguru egokiak izan ditzan, hau da, parte-hartze eta harreman dinamikoa eta etengabe garatzen ari dena egon dadin kultura-nortasun anitzen artean, osagarriak eta ez baztertzailak, komunikazio irekian eta norabide guztietan.

Beraz, panorama aldatzeko egin beharreko prozesu luzeaz oharturik ere, gure ustez urratsak egin dira, pixkanaka aldaketak ekarriko dituztenak eta kultura ezartzen eta txertatzen lagunduko dutenak garapenean eta, ondorioz, nazioarteko lankidetzak-ekintzetan.

Hona hemen guk etorkizunari begira egindako gogoeta batzuk, kultura eta garapenari buruzkoak, eta horiek nazioarteko lankidetzan txertatzeari buruzkoak:

Kulturaren definizioa

Lehenbiziko urratsa kontzeptu-zehaztasuna lortzeko ahalgina egitea litzateke. Lan honetan erakutsi dugun moduan, ez da berdina kultura-aniztasuna eta kultura-askatasuna, eta ezta kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna ere. Beraz, kultura zeharkakoa izatea nahi duen nazioarteko lankidetzak-ekintza orok, lehenik zehaztasun eta definizio lana egin behar du, proiektuan edo ekintzan zer hurbilketa erabiliko den azaltzeko. Definizio horrek ez du esan nahi ekintzan kultura txertatuko denik, baina hitzen definizioak eta zehaztasunak ekintza kokatzen lagunduko du.

Kulturaren dimentsio bikoitza

Aurreko ataletan genioen bezala, harremana dago ekonomia eta kulturaren artean, eta kulturaren sektoreak lagundu egin dezake herrialde bateko diru-sarrerak handitzen eta enpleguak sortzen. Kulturaren dimentsio ekonomikoa, kultura-industriak eta sormenezko ekonomia landu behar dira kultura- eta garapen-ekintzetan.

Lan horrek, baina, kulturaren eta garapenaren eremu zehatza denak, ez digu ahaztarazi behar kulturaren beste dimentsioa: nortasunaren dimentsioa, eta gizartearen kohesio-natzeko eta ideiak eta sentimenduak sortzeko duen balioa. Gizakiak berezkoa du kultura, eta gizakiak kultura-testuinguru bat behar du bere nortasuna garatzeko. Beraz, kulturaren eta garapenaren arloan egindako lana ezin dugu mu-

gatu kulturaren dimentsio ekonomikora. Aitzitik, ahalegin berezi bat egin behar dugu kulturaren nortasunaren dimentsioa ikus dadin, eta kontuan hartu kultura-adierazpenek, ondare ez-materialak, hizkuntzak eta abarrek gizartearen eta komunitatearen duten eragina.

Kultura anitza

Kultura-aniztasunean egindako lanaz gain, kultura benetan zeharkakoa izan dadin, kultura entitate aniztat hartu behar da, etengabeko prozesuan dagoena, pertsonak eta komunitateak topatzearen emaitza dena, eta harreman horren ondorioz aldatuz doana. Horrela, hainbat erakundek diotenaren ildotik, kulturak kontzeptu irekia izan behar du, nortasunen aniztasunari lotua, eta ez entitate itxia, tradizioari soilik lotua.

Folklorizazioa – gauza bihurtzea

Aurreko proposamenaren eta kulturaren definizio holistikoaren bidetik, saihestu egin behar ditugu kultura-adierazpenak 'folklorizatzeko' joerak, kultura-ondarea erakusgaitzat hartzea, batzuetan baita testuingurutik kanpo ere, eta kultura-komunitate minoritarioak ondarearen adierazpen horiekin lotzea, eta ez kulturaren beste eremu batzuekin, hala nola sentimendu, ideologia eta abarrekin.

Kultura-komunitateak

Nahiz eta, aurreko ataletan azaldu bezala, talde eta komunitate batzuek etengabe urraturik duten kultura-bizitza eskura edukitzeko eta parte hartzeko eskubidea, kultura eta garapenaren arloko ekintza ez dugu mugatu behar komunitate horietara. Garapenean kultura modu integrarean txertatzeak komunitate osoa izango du kontuan, egoerarik onenean dauden taldeen kultura ikusezin bihurtu gabe, eta komunitate minoritario edo boteretik urrun dauden kultura horiek «folklorizatu» gabe. Puntu honetan gogorazi beharra dago kultura eta garapenaren arloko ekintzek komunitatearen parte-hartzea izan behar dutela ekintzaren fase guztietan.

Akatsak eta praktika-txarrak agerian jartzea eta zuzentzea

Hamarkada hauetan zehar, kultura-sustapenaren kontra joan diren hainbat garapen-ekintza egin dira. Beste arlo batzuetan, adibidez ingurumenari buruzkoetan, egindako akatsak aurkitu eta batzuk behintzat konpondu dira. Akatsak aurkitzea bera oso tresna baliagarria da akatsak ezabatzeke.

Beraz, gure proposamena da garapen-ekintzetan egindako 'kultura arloan emandako akatsak eta praktika-txarrak' agerian jartzen eta onartzen saiatzea, eta hurrengo pauso batean akats horiek gainditzeko bide eraginkorrak aurkitzea. Zoritxarrez ugari dira, baina 'akats' zeri esaten diogun zehazteko, adibide moduan aipatuko ditugu hezkuntza-politikak burutzeko orduan komunitate askotan egin diren «hizkuntza-ordezteak», ikasleen ama-hizkuntza aintzat hartu gabe.

Giza eskubideak eta kultura-askatasuna

Sarritan entzuten da garapenaren alde egindako lanean

kultura erdigunean ipiniz gero 'kultura-erlatibismoa' onar daitekeela. Gure ustez, ordea, behingoz gaingitu beharra dago 'kultura-tradizioaren' eta 'historikoki izendatutako rola-aren' arteko dikotomia. Horrela, UNESCOren 2001eko Adierazpenak zioen bezala, inork ezin du kultura-aniztasunaren defentsa aitzakiatzat hartu giza eskubideen eta gizabakoaren osotasun fisikoaren kontrako neurriak onartzeko. Ildo horretan, Ohar Orokorrak bere iritzia ere eman du kultura-bizitzan parte hartzeko eskubideaz eta, gure ustez, eskubideetan oinarritutako lankidetzak ezin dituzte babestu pertsona bakoitzaren giza eskubideen, bizitzaren edo osasunaren kontra doazen tradizioak. Aipatzekoa da Nazio Batuetako adituen 2010eko maiatzaren 21eko Adierazpena ere, giza eskubideak kultura-aniztasunaren tresna izateari buruzkoa. Era berean, gogoratzekoa da kultura-askatasunak kultura-aniztasunaren sustapenean ekar ditzakeen mugapenak, UNDPren txostenak argitutakoaren arabera.

Kultura zeharkako ardatz gisa garapen- eta lankidetzak-ekintzan

Kultura nazioarteko garapenaren eta lankidetzaren eremu guztietan dagoela onartu beharko dugu. Kultura-proiektuekin zuzenean lotutako eremuetan ez ezik, garapen-politika guztietan jarri behar da agerian kulturaren ikuspegia.

Ezin dugu pentsatu kulturaren sektoreari zuzenean eragiten dioten proiektuetan bakarrik kontuan hartuko denik kultura, frogatuta baitago lankidetzak-proiektu guztiek agerian jarri behar dituztela giza jarduera guztien alderdi kulturalak.

Ildo horretan, lankidetzak-agentziek beren proiektuetan zeharkako ardatz bat edukitzea aztertu beharko litzateke, genero-berdintasunean, ingurumenean edo giza eskubideetan dagoen legez.

Generoa eta kultura

Argitalpenean zehar aztertutako erakunde eta dokumentu ugariak aipatu bezala, kultura eta garapenaren inguruko lanean genero ezberdintasunak kontutan hartu beharko dira eta emakume eta gizonezkoek kultura-bizitzan parte hartzeko aukerak eta kultura-eskubideen gauzapenean ezagutu ditzaketen ezberdintasunak aztertzea derrigorrezkoa da, garapenaren beste eremutan ere ematen den moduan. Gure ustean garapenean kultura-ikuspuntua txertatzeko unean, genero ezberdintasunek emakumearen parte hartzea baldintzatu ditzakeen eragileen azterketa egitea lehentasunezko gaia da, betiere aurreikusi eta ekin behar zaiona, bai garapen eremuan baita kultura-eskubideen argitzapenean ere.

Hizkuntza-aniztasuna

Kulturaren barne, hizkuntza aldarrikapen erabakigarri eta adierazgarrieneraiko bat da; hala ere, ez du beharrezko arreta jasotzen. Egun mundu mailan ematen den hizkuntzen desagerpen bizkorren aurrean, beharrezkoa dugu garapen ekintzetan ere hizkuntzek giza garapenean duten rola aztertzea eta kontutan izatea nazioarteko lankidetzak hizkuntz eremuan izan dezakeen eragina, positiboa

(aniztasunaren sustapena) edota negatiboa ere (hizkuntza-ordezteak) izan daitekeena. Nazioarteko lankidetzak oro har 'nazioartekotzat' jotzen ditugun hizkuntzetan ematen da (ingelesa, frantsesa, gaztelaniaz, etab.), baita lankidetzak bultzatzen duten herrietako hizkuntzetan. Kultura eta garapenaren arloan, beraz, hobeto aztertu beharko genuke hizkuntzak duen esanahia eta zeregina.

Kultura-adierazleak

Oraindik ez dago unibertsean onartutako kultura-adierazlerik, baina horiek aurkitzeko bide kualitatiboak eta kuantitatiboak ari dira urratzen. Adierazle horiek erabiltzen hasi dira UNESCO eta AECID bezalako erakundeak, eta kontuan hartu beharko dute lehen aipatzen genuen kultura-nortasunaren dimentsioa ere, kulturaren ekonomizazioan erori gabe.

Eskubideen ikuspegia

Aurreko ataletan adierazi dugun moduan, eskubideen ikuspegia garapen-ekintzetan egiten ari den ekarpena ukalezina da. Ildo horretan, kultura-eskubideak nazioartean argitzea bultzatu beharko dugu, bai eta eskubide horiek herrialde eta komunitate bakoitzera moldatzea ere, eta materialak sortu, etorkizunean lege babesleak eta sustapen-politika publikoak sortzeko.

Eragileen koordinazioa

Gaur egun mundu mailan, eta Espainian ere, kulturara eta garapenera modu erreal eta integratuean hurbiltzen diren erakunde, instituzio eta eragileak gutxi izanik, gure ustez gaurko koordinatu behar dira: GGKEak, lankidetzarako agentzia deszentralizatuak, unibertsean, etab. Horretarako, ezinbestekoa izango da sareak sortzea eta sentsibilizazio-ekintzak elkarrekin egitea, bertako sinergia eta prozesuen bidez informazioa eta kolaborazioa partekatzeko, ekintzak koordinatzerakoan.

Esperientzien bilduma egitea

Aurreko puntuari loturik, kultura eta garapenaren arloko ekintza positiboak eta arrakastatsuak identifikatzeko aldera, esperientziak sistematizatu beharko dira, garapen eta lankidetzaren beste erakunde eta eragile batzuek esku hartzeko aukera errealak ikus ditzaten.

Trebatzea eta jakintza sortzea

Gaur egun, garapen eta lankidetzaren arloko langile teknikoei eta eragileek trebakuntza behar dute, kultura beneratzen txertatu ahal izateko garapenean. Ildo horretan, kultura txertatzeko ahalegin berezia egin beharko da giza eskubideetan eta nazioarteko lankidetzan trebatzeko gaur egun dauden aukera ugarietan (ikastaroak, masterrak, graduatu-ondokoak, etab.). Halaber, kultura eta garapenaren teoriak sakontzea eta jakintza sortzea komeni litzateke, hau da, saiakerak, artikulak eta bestelako argitalpenak idaztea, hemen aurkezten dugun liburu hau horren adibide izan dadin espero dugularik.

08. Irakurtzeko gonbidapenak

Argitalpen hau osatzeko, kulturen eta garapenean sakontzeko interesgarriak izan daitezkeen artikuluen eta lanen zerrenda labur bat gehitu dugu. Zerrenda honetan ez daude kultura eta garapenaren arloko argitalpen eta artikuluz guztiak, eta gaiak gehiago jakiteko oinarritzko irakurketa batzuk eskaintzen dira. Besteak beste, eskuragarrienak diren baliabideak aipatu ditugu, adibidez Interneten azaltzen direnak. Zerrenda honetan daude argitalpen hau egiteko erabilitako lan guztiak ere.

NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN ETA LANKIDETZA-ERAKUNDEEN AGIRIAK

1. Nazioarteko Kultura Lankidetzaren Oinarrien Adierazpena (UNESCO, 1966).

http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13147&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

2. Gobernu arteko lehen biltzarra kultura-politiken alderdi instituzional, administratibo eta finantzarioez (UNESCO, 1970).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0009/000928/092837SB.pdf>

3. Kultura Politikei buruzko Munduko Biltzarra – MONDIACULT – Mexiko (UNESCO, 1982).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0005/000546/054668MB.pdf>

4. Giza Garapenerako Munduko Hamarkada, 1988-1997. Ekintza Programa (UNESCO).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0008/000852/085291sb.pdf>

5. Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (UNESCO, 2001).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0012/001271/127160m.pdf>

6. Kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzeari buruzko konbentzioa, (UNESCO, 2005).

<http://unesdoc.unesco.org/images/0015/001508/150824s.pdf>

7. Giza Garapenari buruzko Txostena, Kultura-askatasuna gaur egungo mundu anitzean (UNDP, 2004).

http://hdr.undp.org/en/media/hdr04_sp_complete1.pdf

8. Munduko Biztanleriaren Egoera: Konbergentzia-eremuak: kultura, generoa eta giza eskubideak (UNFPA, 2008)

<http://www.unfpa.org/swp/2008/presskit/docs/sp-swop08-report.pdf>

9. Espainiar Lankidetzaren Kultura eta Garapen Estrategia - AECID

<http://www.aecid.es/export/sites/default/web/galerias/coopera->

cion/Cultural/descargas/Estrategia_CxD.pdf

10. Kultura-bizitzan parte hartzeko eskubideari buruzko Ohar Orokorra, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleen Batzordea.

<http://www2.ohchr.org/spanish/bodies/cescr/index.htm>

11. Eskubide kulturalen arloko aditu beregain baten mandatua, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseilua.

http://ap.ohchr.org/documents/S/HRC/resolutions/A_HRC_RES_10_23.pdf

12. Aditu beregainaren txostena, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluko 14. saioa.

http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/14session/A.HRC.14.36_sp.pdf

13. Creative Economy. Report 2008: The Challenge of Assessing the Creative Economy: towards Informed Policy-making, UNDP-UNCTAD.

http://www.unctad.org/en/docs/ditc20082cer_en.pdf

14. 'Cultura y desarrollo: ¿una respuesta a los desafíos del futuro?' (Paris, 2009ko urriak 10)

<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001876/187629s.pdf>

15. 'La gestión del riesgo en el financiamiento de la cultura' (Paris, 2010eko maiatzak 16 eta 17)

http://portal.unesco.org/culture/en/ev.php-URL_ID=40601&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

16. Kultura Aniztasunaren Munduko Eguneko Adierazpena, 2010:

http://www2.ohchr.org/english/issues/cultural_rights/docs/statements/Statement_cultural_diversity21052010_sp.pdf

17. Iberoamerikako Kultura Agenda.

http://www.oei.es/cultura/carta_cultural_iberamericana.htm

18. Kulturaren Agenda 21.

www.agenda21culture.net

19. Kultura eta Garapena Nazioarteko Mintegiko Aldarrikapena, Espainiar Europar Batasuneko Presidentzia, Girona, 2010eko maiatza.

<http://www.culturaydesarrollo2010.es/>

KULTURA ETA GARAPENA

Argitalpenak:

1. Radcliffe, Sarah A. (ed.); **Culture and Development in a Globalizing World. Geographies, actors, and paradigms**, Routledge, New York, 2006.

2. Gould, Helen G.; Marsh, Mary; **Culture: Hidden Development. A practical working guide to Culture and Development for the international development sector**, Creative Exchange, London, 2004.

3. Schech, Susanne y Haggis, Jane; **Culture and Development. A critical introduction**, Blackwell Publishing, 2000.

4. **Culture as a tool for development. Challenges of analysis and action**, ARCADE, 2009.
<http://unesdoc.unesco.org/images/0015/001508/150824s.pdf>

5. **Kultura eta Garapenaren inguruko AECID-ren Monografiak: kultura eta garapenaren inguruan eratutako liburuen bilduma:**
<http://www.aecid.es/web/es/publicaciones/Documentos/monografias/>

6. Olmos, Héctor; eta Santillán, Guillermo (konp.); **Culturar: las formas del desarrollo**, CICCUS, Buenos Aires, 2008.

7. **Change in Continuity. Concepts and Tools for a Cultural Approach to Development**, UNESCO, Paris, 2000.

8. Pérez de Cuellar (zuz.); **Nuestra diversidad creativa. Informe de la Comisión Mundial de Cultura y Desarrollo**, UNESCO, Mexiko, 1996..

9. **Dimensión cultural del desarrollo: hacia un enfoque práctico**, UNESCO, Paris, 1995.

10. Dupuis, Xabier; **Culture et développement. De la reconnaissance à l'évaluation**, UNESCO, Paris, 1991.

11. Romero Cevallos, Raúl R.; **¿Cultura y Desarrollo? ¿Desarrollo y Cultura? Propuestas para un debate abierto**, Cuadernos PNUD, Serie Desarrollo Humano 9. zk., Peru.
http://www.pnud.org.pe/data/publicacion/indh_cuaderno9.pdf

Artikuluak:

1. Martinell, Alfons; Vicario, Fernando; Rey, Germán; eta Hernández, Tulio, besteak beste. **'Cultura y Desarrollo'**, Quórum 17 aldizkaria, 2007ko udaberria.
<http://www.revistaquorum.es/quorum-17/index.html>

2. Rey, Germán; **'Cultura y Desarrollo Humano: unas relaciones que se trasladan'**, Pensar Iberoamérica, 0. zk., 2002ko otsaila.
<http://www.oei.es/pensariberoamerica/ric00a04.htm>

3. Kramer, Dieter; **'La cultura en los vendavales de la globalización. El desarrollo entre la autoexclusión y la instrumentalización'**, D+C Desarrollo y Cooperación, 3. zk., 2001eko maiatza-ekaina.

<http://www.inwent.org/E+Z/zeitschr/ds301-3.htm>

4. Kliksberg, Bernardo; **'Capital social y cultura. Claves olvidadas del desarrollo'**, BID-INTAL, Buenos Aires, 2000.
http://www.iadb.org/intal/aplicaciones/uploads/publicaciones/e_INTAL_DD_07_2000_kliksberg.pdf

5. Delgado, Eduard; **'La cultura en el proceso de desarrollo'**.
chrasines.googlepages.com/LA_CULTURA_EN_EL_PROCESO_DE_DESARROL.pdf

KULTURA-ESKUBIDEAK

Argitalpenak:

1. Prieto de Pedro, Jesús; **Cultura, Culturas y Constitución, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales**, Madrid, 2006.

2. Stamatopoulou, Elsa; **Cultural Rights in International Law. Article 27 of the Universal Declaration of Human Rights and beyond**, Hardback, 2007.

3. **Presente y Futuro de los Derechos Culturales**, UNESCO Etxea, Bilbao, 2010.
http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/presente_futuro_ddhh_cultura2009.pdf

4. **Cultural Rights and Wrongs**, Institute of Art and Law, UNESCO Publishing, 2008.

Artikuluak:

1. Symonides, Janusz; **Cultural Rights: new dimensions and challenges**, aparteko tirada, Thesaurus Acroasium, XXIX. liburukia.

2. **Kultura-eskubideak: Friburgoko Adierazpena, 2007.**
<http://www.unifr.ch/iiedh/assets/files/declarations/basque-declaration.pdf>

3. Prieto de Pedro, Jesús; **'Cultura, economía y derecho, tres conceptos implicados'**, hemen: Pensar Iberoamérica 1. zk., OEI.
<http://www.oei.es/pensariberoamerica/ric01a04.htm>

4. Prieto de Pedro, Jesús; **'Derechos culturales y desarrollo humano'**, hemen: Pensar Iberoamérica, 7. zk., 2004ko iraila-abendua.
<http://www.oei.es/pensariberoamerica/ric07a07.htm>

5. Yúdice, George; **'Cultural Diversity and Culture Rights'**, HIOL, Hispanic Issues on line, 2009ko udazkena.
http://hispanicissues.umn.edu/assets/pdf/YUDICE_HRLAIC.pdf

Argazkia: UNESCO – D. Roger



NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA KULTURA

Argitalpenak:

1. Carbó Ribugent, Gemma (koord.); **La cultura, estrategia de cooperación al desarrollo**, Documenta Universitaria, Girona, 2008.
2. Martinell, Alfons; **Diseño y elaboración de proyectos de cooperación cultural**, OEI, Madril, 2001.
3. **Campus Euroamericanos de Cooperación Cultural-en argitalpenak**, OEI.
<http://www.oei.es/campusEuroamericano.htm>

Artikuluak:

1. Jiménez, Lucina; **'Políticas Culturales y Cooperación Internacional para la diversidad y la equidad'**, Pensar Iberoamérica, 10. zk., 2006, OEI.
http://www.oei.es/revistacultura/secc_03/index_4.php
2. Camacho, Hugo; **'La cultura en los planes euroamericanos de cooperación'**, Pensar Iberoamérica, 7. zk., 2004ko iraila-abendua, OEI.
<http://www.oei.es/pensariberoamerica/ric07a04.htm>

EKONOMIA, KULTURA ETA KULTURA-INDUSTRIAK

Artikuluak:

1. Yúdice, George; **'Las industrias culturales: más allá de la lógica puramente económica, el aporte social'**, hemen: Pensar Iberoamérica, 1. zk., 2002ko ekaina-iraila, OEI.
<http://www.oei.es/pensariberoamerica/ric01a02.htm>

2. Del Corral, Milagros; **'Hacia nuevas políticas de desarrollo de las industrias culturales'**, Boletín del Portal Iberoamericano de Gestión Cultural, 13. zk., 2005eko iraila.
<http://www.gestioncultural.org/gc/boletin/pdf/bgc13-MCorral.pdf>

3. Bayardo, Rubens; **'Sobre el financiamiento público de la cultura. Políticas culturales y economía cultural'**.
<http://www.naya.org.ar>

HAINBAT

Argitalpenak:

1. **10 clés pour la Convention sur la protection et la promotion de la diversité des expressions culturelles**, UNESCO.
http://www.unesco.org/culture/culturaldiversity/docs_pre_2007/10_keys_fr.pdf
2. Moneta, Carlos (ed.); **El jardín de los senderos que se encuentran: Políticas públicas y diversidad cultural en el MERCOSUR**, UNESCO Uruguay, 2006.
3. **UNESCOren Munduko Txostena. Invertir en la diversidad cultural y el diálogo intercultural**, UNESCO, 2009.
<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001847/184755s.pdf>
4. Oliva Martínez, J. Daniel; y Blázquez Martín, Diego; **Los derechos humanos ante los desafíos internacionales de la diversidad cultural**, PUV, Valentzia 2007.
5. Ruiz Vieytez, Eduardo J.; **Derechos humanos y diversidad. Nuevos desafíos para las sociedades plurales**, Deustuko Unibertsitatea, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Zarautz, 2008.



09. Loturak

Nazioarteko erakundeak eta lankidetzak-erakundeak

UNESCO

www.unesco.org

UNDP

www.undp.org

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisariatua

www.ohchr.org

AECID

www.aecid.es

OEI – Estatu Iberoamerikarren Erakundea // Kultura eta Garapena

http://www.oei.es/cultura/cultura_desarrollo.htm

Gizarte zibila

UNESCO Etxea

www.unescoetxea.org

Kultura Politiken UNESCO Katedra, Gironako Unibertsitatea

<http://www.catedraunesco.com/>

Aniztasunaren eta Kultura Eskubideen Behatokia

www.droitsculturels.org

Interarts Fundazioa

<http://www.interarts.net/es/>

Red Desarrollo y Cultura

<http://www.desarrolloycultura.net/inicio/>

Creative Exchange

<http://www.creativexchange.org/>

AIETI

<http://www.aieti.es/cultura/>

O'dam ONGD

<http://www.odamongd.org/node/43>